

ZILEGITASUNA

ZIURTASUNA

AUKERA

LANKIDETZA

ELKARTASUNA

INSPIRATZEA

PERSPEKTIBA

Balio
partekatuari

2022 Buruzko txostena

ONCE Gizarte Taldearen
laburpen exekutibo agregatua



Hasi



ZILEGITASUNA

ZIURTASUNA

AUKERA

LANKIDETZA

ELKARTASUNA

INSPIRATZEA

PERSPEKTIBA

Balio partekatuari 2022 Buruzko txostena

ONCE Gizarte Taldearen
laburpen exekutibo agregatua

Presidentearen Gutuna

Ereduaren
ZILEGITASUNA

Datuetan oinarritutako
ZIURTASUNA

Batzen jarraitzeko
AUKERA



LANKIDETZA,
berdinagoak izateko

ELKARTASUNA,
mundu hobe baterako

Balioetan
INSPIRATZEA

Orainetik etorkizunerako
PERSPEKTIBA



Egin klik kapitulu bakoitzean



Presidentearen Gutuna

Adiskide preziatu hori,

Lerro hauek idazten ditut ONCE Gizarte Taldean garenaren errealitatea erakusteko. 2022ko ekitaldian egin ditugun eta garrantzitsutzat jo ditugun zenbait gairen berri emateko, eta, jakina, lortu nahi dugunaz hitz egiteko. Azken batean, munduan bakarra den eredu sozial eta ekonomiko hau zer den eta nola jokatzeko duen erakusteko. Izan ere, eredu horren bidez desgaitasuna duten (eta desgaitasunik ez duten) pertsona asko gizarte-errealitatean sartzen saiatzen gara, zailago baitute. Zaurgarritasunetik **aukerara** (*oportunidad*, hamaika letrako hitz zoragarri bat). Beldurretik **ziurtasunera** (*certidumbre*, hamaika letra berriro) Bizitza hoberako eraldatzen saiatuz, ia 85 urtez egin dugun bezala, eta, dena, **el-kar-ta-sun-** (*solidaridad*, bai hamaika letra) familia handi hau osatzen dugunon fidagarritasunetik, kaudimenetik eta ausardiatik abiatuta.

ONCE Gizarte Taldea ONCEren, ONCE Fundazioaren eta Ilunionen batura baino

gehiago da, orri hauetan zehar egiaztatu ahal izango duzuen moduan: taldean lan egiten duten pertsonak gara, gizartearekin, herritar bakoitza eta guztiekin, konpromiso etengabea daukatena, umiltasunetik eta bizitza egokitu zaigun errealitateetik abiatuta, gizarte justuagoak eta inklusiboagoak bultzatzen saiatzeko. Eta guztia gutaz fidatzen diren herritarrei zor diegu, haiekin hitzarmen bat baitaukagu, **lankidetz**a (*cooperación*, hamaika letra)-akordioa bat, inolako dokumentutan sinatuta ez dagoena, baina bai bostekoa emanda eta “eskerrik asko eta zorte handia” adierazpenean, gure ekintza-ohituretan egunean-egunean sortutako konfiantzan oinarrituta dagoena.

Hasteko, Erakundeko gizon eta emakumeentzat 2022an funtsezkoa izan den zerbait gogoraziko dut: ordezkartzarako eta kudeaketarako gure ereduaren **zilegitasun demokratikoa** (hamaika letrako bi hitz) finkatua geratu da. Ereduaren oinarria lau urtean behin egiten den hauteskunde-

prozesua da, bertan, ONCEren afiliatuak diren pertsona itsuek, adinez nagusiek, bozkatzeko baitute eta beren etorkizuna hautatzen baitute. Hautestontziek 2022ko abenduaren 1ean egin zuten berba, eta partaidetzan ia ehuneko hamarreko gorakada izanda (hautesleen % 66,17raino), gizon eta emakume horiek erabaki zuten beren etorkizuna fidagarritasunean eta kaudimenean sendotutako kudeaketa-eredu baten esku uztea. Azken urteotan eredu horrek aukera eman digu krisi batetik, pandemia batetik, Europako gerra batetik eta sumendi batetik ere igarotzeko, betiere pertsonak errespetatuz, gure **inspirazioa** (*inspiración*, hamaika letra) baitira, eta egunero irabazi nahi dugun etorkizunari **perspektibaz** (hamaika letra) begiratzuz.

Gure errealitatea eta gure nahia erakusten dituzten hitz horietaz gain, 2022ko ONCE Gizarte Taldearen Balio Partekatuari buruzko Txosten honen datuek ez dute zalantzarik uzten eta argi adierazten dute posible dela gizartearekin eta pertsona guztiekin



Presidentearen Gutuna

hartutako konpromisoa errentagarritasun ekonomikoko, errentagarritasun sozialeko eta orainaldiko eta geroaldiko egonkortasun instituzionaleko eredu batekin uztartzea; hau da, posible dela funtsean **gizarte-itzulera** oinarritzen den eredu bat, zeinak herritarrei beraiengandik jasotako azken euroa ere itzultzeaz gain, enpleguarekin, prestakuntzarekin, hezkuntzarekin, irisgarritasunarekin, teknologiarekin, berrikuntzarekin, autonomiarekin eta bizi-aukeren inklusioarekin biderkatuta itzultzen baitie.

2022ko ekitaldian, ONCE Gizarte Taldeak aurrekaririk gabeko bultzada bat eman die gure DNA osatzen duten bi errealiteri: desgaitasuna duten pertsonentzako berdintasuna, enpleguaren bidez, eta emakumeentzako berdintasuna. ONCE Gizarte Taldeko langile guztien artean, 4,2 puntu igo dugu desgaitasuna duten pertsonen ehunekoa, % 62,4raino; eta emakumeen kasuan % 44,3raino iritsi gara, 2021ean baino 1,5 puntu gehiago.

Gaur egun,

68.705 langile gara,

eta horrek laugarren enplegatzaile bihurtzen gaitu Espainian. Langile horietatik 42.844k desgaitasunen bat dugu; ondorioz, pertsona horien munduko enplegatzaile handiena gara. Eta garrantzitsua da jakitea lankide horietako askok gizarteratzeko benetako zailtasunei egin behar dietela aurre, hala nola desgaitasun intelektuala (3.853 langile) edo desgaitasun psikosoziala -lehen gaixotasun mentala zeritzona- duten pertsonen **(4.770 lankidek beren talentua ematen)**.

Eta, bestalde, **30.000 emakume** baino gehiago daude Taldean (30.434 zehazki), horietako askok desgaitasuna dute eta batzuk (oso harro gaude gure taldean sartu izanaz) genero-indarkeriaren gaitzaren eraginpean daude.

Izan ere, ONCE Gizarte Taldean egiten dugun guztia lehen aipatutako gizarte-

itzulera horretara bideratzen da: enpleguan hasi eta hiru arlo korporatiboetatik egiten dugun lan eskergarekin jarraitzen du, denok batera norabide berean batuz.

2022an, ONCEren loteria-produktuen salmentak 2.426 milioi eurokoak izan ziren, aurreko urtean baino % 8,5 gehiago. Kopuru horretatik, lehen itzulkin handia gure bezeroenganako ilusioan iristen da, 1.372 milioi euroko euriarekin txoko guztietan banatuta, zeren eta, badakizu, egunero egokitzen da. % 32,6 soldatetara (saltzaileak eta gainerako langileak) eta kudeaketa-gastuetara bideratzen da; % 9,5 itsuentzako edo desgaitasuna duten pertsonentzako gizarte-zerbitzuetan inbertitzen da (230 milioi euro); eta gainerako % 2,6 partaidetza-prima da langileentzat, baita ikerketa-programa bereziak eta etorkizuneko inbertsioak ere.

Horri esker, 2022an ikusmena galdu ostean bizimodu duinerako konponbideak bilatzeko, aurrera jarraitzeko, guregana



Presidentearen Gutuna

hurbildu ziren 3.100 pertsona baino gehiago Taldean hartu ahal izan genituen. Halaber, **ONCEn afiliatuta dauden 70.490 pertsona itsuek** gure 1.540 profesionalen baino gehiagoren laguntza integrala jaso zuten, adibidez, 92.500 ordu baino gehiagoko bitartekaritza espezifikoa egin zuten goritsutasuna duten pertsonentzat, edo 130 gida-txakur berri eman zizkieten.

Herritarrentzako itzulerak ONCE Fundazioaren lan eskergarekin jarraitu zuen. Horri esker, 2022an 115,6 milioi euro bideratu zituen Espainiako txoko guztietan desgaitasun-arloko 1.000 gizarte-erakunderi baino gehiagori laguntzeko. Eta zer esan ilunion gure enpresa sozialei buruz, 2022a itxi baitzuten 1.000,2 milioi eurorainoko fakturazio-errekorrarekin, desgaitasuna duten pertsonen enplegatzaile handi gisa finkatuz (langileen ia % 50), 480 lantokitan banatuta.

Amaitzeko, gure jarduera osoaren erabateko gizarte-itzulerarekin dugun konpromisoa

berresten dut -txosten honetan zehaztasun handiagorekin ikusi ahal izango duzunez-

**Zilegitasuna,
ziurtasuna,
aukera,
lankidetzaz,
elkartasuna,
inspirazioa
eta perspektiba**

(Legitimidad, certidumbre, oportunidad, cooperación, solidaridad, inspiración y perspectiva, hamaika letrako hitzak) dira zer garen eta zer izan nahi dugun kokatzeko erabili nahi izan ditugun kontzeptuak; gure etorkizuna irabaztera eta guztiekin partekatzera egunero kalera nola ateratzen garen. Izan ere, ziur gaude gure eredu sozialaren iraunkortasun ekonomikoa bermatzea dela hori egiten jarraitzeko modu bakarra.



Miguel Carballeda Piñeiro

ONCE Gizarte Taldeko presidentea




1

Ereduaren ZILEGITASUNA

- 1.1 Soziala, fundaziokoa, enpresakoa
- 1.2 Hautestontzietatik sortutako kudeaketa



Egin klik kapitulu bakoitzean





ONCE Gizarte Taldea ONCEren, ONCE Fundazioaren eta Ilunionen lanaren batura baino gehiago da, aurreko guztiak argi ezarritako identitate eta lehenetasun beraren baitan batzen dituen marka da, hain zuzen: itsu diren edo beste desgaitasunen bat duten pertsonen erabateko inklusioa eta bizimodu indepenterako sarbidea lortzea, Espainian zein Espainiatik kanpo. Munduan bakarra den elkartasun-eredu bat, pertsona itsuak eta desgaitasuna duten pertsonak abiapuntu dituen eta desgaitasuna duten pertsonentzat lan egiten duena. Demokrazian egindako kudeaketan, hautestontzietan legitimoki bermatuta, oinarritzen den sistema bat, etorkizunerako gakoa den garapen moderno eta jasagarria lortzeko.

1.1 Soziala, fundaziokoa, enpresakoa

ONCE, erakunde gisa, 1938an sortu zen, itsu-talde baten ahaleginari esker; izan ere, pertsona horiek hainbat urte zeramatzaten indartsuago izateko elkartzeko saiatzeko eta diru-sarrera txikiak lortzeko zituzten Espainiako hainbat tokitan sakabanatutako zozketen bitartez. Subsidio batetik bizitzeari uko eginez jaio ziren eta herritarren errealitatea partekatu nahi izan zuten (gerra ondokoan) loteria-produktu baten kudeaketarekin: kupoia, zeina apurka-apurka eta inklusio-palanka gisa bizilagunen artean sartzeko joan zen.

Zortzi hamarkada beranduago, ekimen horren bilakaerak, Espainiako gizartearen bilakaerari, lehenengo, eta Europakoari eta mundukoari, azken urteotan, lotuta, ONCE Gizarte Taldea eratu du, itsuentzako zerbitzu sozialen eta desgaitasuna duten pertsonentzako enpleguen munduko sortzailerik handiena, eta publikoa ez den laugarren enplegatzaile handiena Espainian, desgaitasuna duten eta ez duten pertsonentzat, 68.700 langile baino gehiagoko plantilla baitu.

Taldearen helburua - pertsona itsuen eta desgaitasunen bat duten pertsonen erabateko inklusioa- munduan eredu bakar bihurtu da herritar guztientzat gizarte-balioa sortzen. Ekonomia sozialeko lidergo-eredu bat, alderdi soziala, fundaziokoa eta enpresakoa batu eta marka global batean elkartzeko gai dena, betiere arlo bakoitzaren zeregina babestuz:



Itsuen edo ikusmen-desgaitasun larria duten pertsonen inklusioaren eta autonomiaren munduko erreferentzia. Loteriaarduratsuko, seguruko eta sozialeko produktuen kudeaketan oinarritzen du bere zeregina, kontrol publiko zorrotzaren pean, eta diru-sarrera guzti-guztiak gizarte-itzulera berrinbertitzen ditu.



1988an eratu zen, ONCEren eredu sozialaren elkartasuna desgaitasunen bat duten gainerako pertsonen ere zabaltzeko eta, horrela, beren inklusioa sustatzeko, prestakuntzaren, enpleguaren eta irisgarritasun unibertsalaren palanketan jardunez, horiek guztiak ezinbestean lotuta baitaude etorkizunerako bide gisa.



ONCE Gizarte Taldearen enpresa arloko ekimen guztien marka, aterki ekonomiko-sozial baten babespean bat eginda eta sei arlo handitan dibertsifikatuta (zerbitzuak; hotel-eta ospitale-alorrekoak; aholkularitza; soziosanitarioa; merkaturatzea eta ekonomia zirkularra), iraunkortasuna eta desgaitasunen bat duten pertsonen enplegua helburu hartuta.





1.2 Hautestontzietatik sortutako kudeaketa



ONCE Zuzenbide Publikoko Korporazioa da, izaera sozialekoa, ekonomia sozialeko legeetan aintzatetsitako entitate berezi bat, bere funtzionamendua barne-demokrazian oinarritzen duena eta Erakundeko kide diren pertsona itsuei bide ematen diena bete-betean parte har dezaten 1982tik, lau urtean behin, Erakundearen gobernu- eta ordezkari-organok aukeratzen dituzten hauteskunde-prozesuetan. Azkena, aurten, 2022an, egin da.


ONCEren hauteskunde-eredua Administrazioak ikuskatzen du, Babesletza Kontseiluaren bidez. Hauteskunde ondoen, egitura zentrala eta lurraldekoa eratu eta ezartzen dira, baita horien funtzionamendu-erregelamenduak ere, Erakundearen interes orokorreari eta helburuei

erantzuten jarraitzeko, 2022ko abenduaren 1ean **ONCEren** hamabigarren hauteskundeetan gertatu zen bezala.

Kontseilu Nagusia gobernu- eta ordezkari- organo gorenena da eta eginkizun du Erakundearen egonkortasun instituzionala eta finantzarioa eta giza-eskubideen errespetua zaintzea, bai eta pertsona itsuen edota ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen erabateko gizarteratzea ere. Erakundearen arteko harremanak koordinatzen ditu, desgaitasunaren elkarte-mugimendua indartzen eta elkartasuna zabaltzen laguntzen du, eta zeregin estrategikoa du erabakiak hartzeko orduan, Erakundearen gobernu ona babesteko. Beraz, kudeaketa zuzentzeko, kontrolatzeko, koordinatzeko eta gainbegiratzeko eskumen handienak bere gain hartzen ditu, jarduteko eta funtzionamendua kontrolatzeko eta ebaluatzeko zeharkako irizpideak finkatuz.

Kontseilu Nagusiaren menpe daude Taldearen jardura multzokatzen deneko hiru arlo exekutiboak: **ONCEren** Zuzendaritza Nagusia (loteria arduratsuko produktuen kudeaketa eta itsuentzako gizarterbitzuen garapena); **ONCE Fundazioa** (desgaitasuna duten pertsonen elkarlanerako eta gizarte-inklusioreko); eta **Ilunion**, ekonomia soziala errentagarria eta jasagarria dela erakusten duen gizarte- eta enpresa-arloa.

Organigrama orokorra





2

Datuetan oinarritutako ZIURTASUNA

- 2.1 Desgaitasuna duten pertsona gehiago; emakume gehiago
- 2.2 Milioi erdi prestakuntza-ordu



Egin klik kapitulu bakoitzean





2.1 Desgaitasuna duten pertsona gehiago; emakume gehiago

ONCE Gizarte Taldearentzat datuak garrantzitsuak dira, horien atzean dauden errealitateak erakusten dituzten elementuak diren aldetik. Izan ere, argi eta garbi agerian uzten dute pertsonak eta, bereziki, desgaitasunen bat dutenak edo bazterketa arriskuan daudenak aurrean dituen proiektu ekonomiko eta sozial baten dimentsioa. Horregatik, behin eta berriro esaten dugu pertsonak diren zenbakiak direla, zifra bakoitzaren atzean, bizitza-aukera bat dagoelako.

Horixe da iraunkortasun finantzario eta orokerrera bideratutako kudeaketaren gakoetako bat, baina, batez ere, gizartea oro har (administrazioak, enpresak, erakundeak eta herritarrak) kontzientziatzeko desgaitasuna duten pertsonak eta euren talentua gizarteratzea ohiko errealitate bilakatu behar dela. Azken batean, pertsona askok - egoera zailetan, bereziki- ziurtasunak bilatzen dituzte eta horixe erakutsiko dugu hemen azaltzen diren datuen bitartez.

Berrikuntza enpleguaren arloan aplikatzen dugu, desgaitasuna duten pertsonentzako lan-nitxoak eta lan-ekimenak bilatuz eskulana intentsiboagoa eta beharrezkoagoa den sektoreetan, bai eta pertsona horietako bakoitzaren errealitate eta premietara egokituta daudenetan ere.

Azken hamarkadan (2013-2022), **ONCE Gizarte Taldeak**, desgaitasuna duten pertsonentzako 95.282 enplegu bultzatu ditugu - % 44,8 desgaitasuna duten emakumeek betetzen dituzte -, bai zuzenean, bai gure ohiko kolaboratzaileen laguntzari (enpresak, erakundeak eta bestelako organizazioak, batik bat) eta talentuaren kudeaketari esker.

Datuek atzean dagoen errealitate bat islatzen dute: azken urteotan, gure lan eta ahaleginari esker, desgaitasuna duten 26 pertsonak egunero lortu dute lanpostu bat, eta hori guztia, krisi ekonomikoak eta/edo sanitarioak bezalako une zailak igaro badira ere. Eta, eragozpen horiek gaindituta, 2022an errekorra

ezarri zen, serie historikoan ikusten denez, desgaitasuna duten pertsonentzat 13.230 lanpostu bultzatu baitziren hirugarren entitateen bidez (enpresak, administrazioak eta erakundeak), berriro ere ondo egindako lanaren bermea.

Eta, hemen, datu bat nabarmendu nahi dugu: nola bultzatzen dugun zeharka desgaitasunen bat duten pertsonentzako prestakuntza eta enplegua, baita zailtasuna handia den errealitateetan ere. 2022an sortutako enpleguetatik, 818 itsuek edo ikusmen-desgaitasuna dutenek bete zituzten; 5.327, desgaitasun fisikoa dutenek; 980, gorrek; 2.391, adimen-desgaitasuna dutenek; 2.327, desgaitasun psikosoziala dutenek (lehen gaixotasun mentala esaten zitzaiona); eta 1.387, beste ezintasun batzuk dituztenek.

Gure aldetik, etsenpluaren bidez predikatzen jarraitzen dugu eta 2022ko abenduaren 31n **ONCE Gizarte Taldean** 68.705 pertsonak egiten zuten lan

(2021eko abenduan baino 2.489 gutxiago, *Ibermática* kontsolidatutik atera zelako), horietatik 42.844 (2022an baino 1.415 gehiago) desgaitasun-motaren bat duten pertsonak dira, % 62,4, eta plantillan 30.000 emakume baino gehiago ditugu (30.434 zehazki), hau da, guztizkoaren %44,3, aurreko ekitaldiaren itxieran baino 1,5 puntu gehiago.


Horrekin guztiarekin, Espainiako laugarren enplegatzaile global handiena gara desgaitasuna duten eta ez duten pertsonentzat, eta desgaitasuna duten pertsonen enplegatzaile handiena munduan. Eta, nabarmendu nahi dugu enplegu egonkor eta kalitatezkoaren alde eginga dugun apustua: 2022an, ONCE Gizarte Taldearen barruan 2.867 kontratu mugagabe sinatu ziren ONCE Gizarte Taldean, horietatik 1.155 loteria produktuen saltzaileentzat izan ziren.

Desgaitasuna duten pertsonentzat hirugarren entitateetan bultzatutako enpleguaren bilakaera 2013-2022 aldian (pertsona-kopurua)

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	Azken 10 urteetan
ONCE	316	357	351	329	345	380	373	355	467	501	3.774
ONCE Fundazioa	6.312	6.966	7.079	7.494	8.901	10.234	9.159	8.171	11.257	12.235	87.808
Ilunion	132	66	253	728	328	474	445	361	419	494	3.700
ONCE Gizarte Taldea, guztira	6.760	7.389	7.683	8.551	9.574	11.088	9.977	8.887	12.143	13.230	95.282




Enplegua, desgaitasunaren arabera sailkatuta



A	Desgaitasunik gabeko pertsonak	25.861	% 37,6
B	Desgaitasuna duten pertsonak	42.844	% 62,4
GUZTIZKOA		68.705	


Gizonezkoak

Enplegua, generoaren arabera




A	Gizonezkoak	30.434	% 44,3
B	Emakumezkoak	38.271	% 55,7
GUZTIZKOA		68.705	

Desgaitasun desberdinetarako enplegua




A	ONCEn afiliatutako persona itsuak	5.206	% 12,2
B	Ikusteko bestelako desgaitasuna	2.141	% 5,0
C	Desgaitasun fisikoa	23.392	% 54,6
D	Entzuteko desgaitasun sentsoriala	3.482	% 8,1
E	Desgaitasun intelektualak	3.853	% 9,0
F	Desgaitasun psikosoziala	4.770	% 11,1
Desgaitasuna duten pertsonak, guztira		42.844	

Datu horiek aintzat hartuta, 2022an, Espainian lan egiten zuten 299 pertsonatik batek ONCE Gizarte Taldean egiten zuen lan.





ONCEren loteria-produktuen bilketaren bilakaera (milioi eurotan)



Salmenta guztien banakapena eta kanalaren arabeko bilakaera (milioi eurotan)

	2018	2019	2020	2021	2022
A Kanal Nagusia (agente saltzaileak)	1.959,9	2.030,4	1.414,9	1.976,2	2.148,5
B Kanal Fisiko Osagarria	166,4	182,5	141,5	195,5	205,7
C Internet Kanala	34,6	42,4	58,7	64,3	72,1
Loteria-produktuen salmenten guztizkoa	2.160,9	2.255,3	1.615,2	2.236,0	2.426,3



ONCE Fundazioaren magnitude ekonomikoak

ONCE Fundazioaren diru-sarrerak, jatorriaren eta jomugaren arabera

Diru-sarrerak guztira eta iturriaren araberako banakapena

(milioi euro)

	2022
ONCE	72,8
Europako Gizarte Funtsa	30,9
Dohaintza pribatuak	1,7
Bestelako dirusarrerak	12,7
GUZTIZKOA	118,1


Aplikatutako baliabideak guztira eta banakapena

(milioi euro)

Enplegu eta Prestakuntza Plana	88,6
Irisgarritasun Plana	27,0
Administrazio gastuak	1,3
GUZTIZKOA	116,9
Superabita	1,2
GUZTIZKOA	118,1

Ilunionen magnitude ekonomikoak

Ilunion salmenten bilakaera eta banaketa enpresa nagusien arabera.



Salmenta nagusiak honako dibisio hauetakoak dira:

- 535,4 milioi euro Zerbitzu Dibisioari dagozkio:
- 331,6 milioi euro Hotelen eta Ospitaleen Dibisioari dagozkio.
- 48,1 milioi euro Aholkularitza Dibisioari dagozkio
- 43,7 milioi euro Merkaturatze Dibisioari dagozkio
- 26,7 milioi euro Dibisio Soziosanitarioari dagozkio
- 14,5 milioi euro Ekonomia Zirkularreko Dibisioari dagozkio.



2.2 Milioi erdi prestakuntza-ordu

Etengabeko prestakuntza gizarteratzeko eta hobetzeko palanka ezin hobea da herritarrentzat, oro har, langile guztientzat eta, bereziki, desgaitasuna duten pertsonentzat, lehiakortasuna enpresetan ezinbesteko elementua den garaiotan.

ONCEK 1950eko hamarkadan ekin zion itsuen prestakuntzari, erabat sinetsita baitzegoen ezagutza etorkizuna irabazteko modua zela, eta, garai ilun horietan, emakume itsuak ere sartu zituen prestakuntzan, zenbait lantegitan lan egiteraino iritsi zirenak.

Horregatik, langileentzako zuzeneko prestakuntza, **ONCEtik** eta **Ilunionetik**, eta desgaitasuna duten pertsonentzako, **ONCE Fundaziotik**, funtsezkoak dira ahalegintzeko eta, berriro ere, pertsonen itzulkinak egiteko, etorkizun-helburu honetarako: enplegua sendotzea edo, prestakuntza hobea izanda, beste enplegu hobe bat lortzea.

2022an, online formatua oso ezarrita zegoenean, eta osasun-egoera egonkortzeak jarduera presentzialari berriro ekitea ahalbidetu zuenean, 529.469 ordu lortu ziren, ia aurreko urteko erritmoan.

ONCEn 140 prestakuntza-ekintza gauzatu ziren, 51.185 bertaratze izan ziren eta, guztira, 319.345 prestakuntza-ordu jaso zituzten langileek. Horretarako, ia 1.6 €-ko inbertsioa egin zen.

IlunioneK jarraipena eman zion “*Formando Ilunion/ Ilunion eratzten*” proiektuari, Pertsonak Kudeatzeko eta Talentua Garatzeko Zuzendaritzatik

prestakuntza integratzeko, eta 204.300 ordu eman zituen, besteak beste, hauetan arduatuta: lanpostuaren hobekuntza; trebetasun sozial eta pertsonalak; aniztasuna; familia-arloan arduratsua den enpresa; desgaitasuna; eraldaketa digitala eta berrikuntza; eta kultura korporatiboaren balioak.

Eta **Fundazioak** 5.824 ordu eman zituen guztira, 1352 prestakuntza-ekintzatan banatuta eta helburu instituzionalen, estrategikoen eta negozio-arlokoen inguruan egituratuta. Neurri handi batean, aurreko urteetako formatu birtualak eta onlinekoak erabiltzen jarraitu zuten ekintzok, batez ere, etorkizun handiko eta eskulan intentsiboko lan-errealitateetara bideratuta.

Izan ere, erakunde-kulturan, zibersegurtasunean eta hizkuntzetan trebatzen jarraitu zen eta eraldaketa digitalaren inguruko prestakuntza areagotu egin zen, jarduera digitalizatzearen beharrari euskarri emateko. Ildo horretan, *Digital Workplace* proiektuaren barruan zenbait webinar garatu ziren eta *Keep Transforming* ekimena abiatu zen; zuzendaritza-taldeak “Eraldatzeko lider izan” hitzaldi-zikloan parte hartu ahal izan zuen, eta *LinkedIn Learning* prestakuntza-plataforma langileen eskura jartzen jarraitu zen, *ViLearning* ekimena ezarrita. Ekimen horrek 15 egunean behin LinkedInen prestakuntza-ekintzen hautaketa bat aurkezten du, interes orokorreko alderdiei buruz.





3

Batzen jarraitzeko AUKERA

- 3.1 ONCE
- 3.2 ONCE Fundazioa
- 3.3 Ilunion



Egin klik kapitulu bakoitzean





Batasuna batzen jarraitzeko aukera bat da. ONCEren, ONCE Fundazioaren eta Ilunionen ekintzen batura batzeko, batzeko eta batzeko beste aukera bat da. Izan ere, ONCE Gizarte Taldearen ideia haratago doala eta, talde-lanari esker, banaka lortuko ez litzatekeena lortzen duela agerian jartzen du.

Horrela, eredu sozial eta ekonomiko bat eratzen da, berez hazteko aukera bat dena eta, halaber, eredu horretara hurbiltzen direnei etorkizuna elkarrekin eraikitzeko aukera ematen diena, berdinen kontzeptutik abiatuta. Hiru arlo exekutiboen lana lotu egiten da, gizarte-arloko lider eta gizarte-ekonomiako lider bihurtzen dituen batukari bilakatzeko: loteria arduratsuaren kudeaketa pertsona itsuen eta ikusmen-urritasun larria dutenen estaldurarako; elkartasuna desgaitasuna duten pertsonen prestakuntzara, enplegura eta irisgarritasunera hedatzea; eta eraginkortasun ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza. Gero eta batuago dagoen triangulu garaiezina.

3.1 ONCE

ONCE itsu-talde baten ilusiotik jaio zen: XX.mendearen hasieran, pertsona itsuek estaldura ekonomikoa eta soziala bermatzeko behar adina diru-sarrerara sortzeko gai zen erakunde bat imajinatu zuten. Gorabehera askoren ondoren, 1938ko abenduan gauzatu zen eta Estatuak loteria bat, kupoia, ustiatzeko emakida lagatzea ekarri zuen berekin.

Salmentak eragindako diru-sarrerak Espainiako ekonomiaren eta gizartearen eboluzioaren erritmora bilakatzen joan ziren eta demokrazia

Espainiara eta **ONCEra** iritsi zenean, abiatzea lortu zuten, joko arduratsu, seguru eta sozial baten kudeaketa konprometituarekin bat eginda. Izan ere, joko hori pertsona itsu eta desgaitasuna dutenentzako munduko zerbitzu-emailerik handienaren oinarria da.

Urteetan zehar, Erakundea gai izan da bere burua berrasmatzeko, herritarren konfiantza izaten jarraitzeko, hala loteriako bere produktuetan nola desgaitasuna duten pertsonentzako estaldura-ereduan. Izan ere, gizarteak ezagutu eta baloratu egiten du estaldura hori, ONCEk bere diru-sarreraren bidez eragiten duen gizarte-itzuleraren jakitun baita. 2022an, loteriak saltzeagatiko diru-sarrerak 2.426 milioi eurokoak izan ziren, 2021ean baino % 8,5 gehiago (pandemiaren azken eragina nabaria zen oraindik). Horrek bezeroen konfiantza mantendu dela adierazten du eta **ONCEko** 19.000 agente saltzailek baino gehiagok (guztiak desgaitasunen bat duten pertsonak) egindako ahaleginaren erakusgarria da.


Gizarte-helmuga

Loteriako produktuak merkaturatzeak sortutako baliabideak **ONCEren** helburu sozialetara bideratzen dira erabat eta osorik, eta, 2022ko ekitaldian, 154 milio euro baino gehiago izan ziren.

Izan ere, itsuentzako gizarte-zerbitzuak ematea da lehentasuna, eta ahalegin berezia egin da zerbitzu horiei eusteko, eta, gainera, zenbait arlotan indartzeko, bereziki adinekoentzako, adingabeentzako edo gor-itsuentzako estaldura bezalako alderdietan zentratuta, bai eta, ikusmena galdu ondoren eta, ziur asko, beren bizitzako une zailean, arreta profesional eta pertsonalizatua jasotzera guregana hurbildu ziren 3.000 pertsona baino gehiagorentzako estalduran ere.

Halaber, gizarte gisa aurre egin behar diogun egoera globalaren aurrean - neurri batean pandemiaren ondorioz-, laguntza psikosozialari emandako arreta nabarmendu nahiko genuke, ia 7.000 saio egin baititugu xede horretarako gaitutako protokolo berri batean.

- Estaldura globala Erakundean afiliatutako 70.490 pertsonarentzat
- Neurrirako arreta espezializatua 3.131 pertsona afiliatu berrientzat
- Arreta pertsonalerako 41.787 zerbitzu afiliatuentzat
- Helduentzako zerbitzu espezializatuak: errehabilitazioa (8.812); prestakuntza braillean eta/edo tifloteknologiaren erabileran (8.061); laguntza psikosoziala (3.751)
- 6.927 telepsikologiako banakako saio, Laguntza Psikosozialeko Protokolo berriaren barruan
- 3.182 onuradunek maileguan zituzten 6.145 gailu espezializatu, beren ikasketak edo lanpostuak egokitzeke
- Arreta integrala 7.271 ikasle itsu edo ikusmen-degaitasun larriarentzat (horietako 769, unibertsitate-ikasleak)
- Guztira, 92.499 bitartekaritza-ordu pertsona gor-itsuentzat, FOAPS-en bidez
- Gida Txakurraren ONCE Fundazioak 130 txakur berri eman ditu
- Teknologia- eta gizarte-ikerketako 152 proiektu
- 3.015 boluntariok 162.537 zerbitzu-ordu eman zizkieten gure afiliatuei
- Pertsona itsuei 3.560 prestazio-ekonomiko eman zizkieten, 3,6 milioi euroko inbertsioa eginda.
- Begi-patologiaren aholkularitza genetikoari dagokionez, 28 eskaera erantzun ziren.





2022an, afiliatuek bizitza betea eta autonomia eduki ahal izan dute gizarte-zerbitzuen arloko **1.540 profesionalz osatutako talde bati esker**: irakasleak; psikologoak; gizarte-langileak; errehabilitazio-teknikariak; tifloteknologia- eta braille-irakasleak; **animazio soziokulturaleko eta kirol-animazioko koordinatzaileak; enpleguari laguntzeko adituak; kudeatzaileak, administrariak, eta abar.**

Hori guztia posible da jokotik datozen diru-sarrerei esker. Horren banaketa argi erakusten da kupoi batean oinarritutako honako grafiko honetan: bildutako 100 eurotik, 55,3 herritarrengana itzultzen dira sarien bitartez; 22,3 euro gure saltzaileen soldatetara bideratzen dira; 10,3 gainerako langileak eta kudeaketa-gastuak ordaintzera (publizitatea, sistema informatikoak, kioskoen garbiketa, hornidurak...); eta 9,5 euro zuzenean gizarte-zerbitzuetara. Gainerakoa, 2,6 euro, langileentzako partaidetza-prima batera, pertsona itsuentzako programa berezien

garapenera eta etorkizuneko inbertsioetara bideratzen da.

Baina, datu sendo horietaz gain, 2022an gure zerbitzuak handitzen jarraitu dugu, adibidez, ikusmen-arazo larriak zituzten 119 atzerritar helduri (batzuk errefuxiatuak) emandako zerbitzuak; 115 errehabilitazio-zerbitzu, edo 21 komunikazio- eta informazio-zerbitzu, besteak beste.

Joko arduratsua

ONCE Munduko Loteria Elkarteko (WLA) eta Europako Loteria Elkarteko (EL) Joko Arduratsuaren printzipioei atxikita dago. Joko arduratsuekin lotutako estrategien egonkortasunerako bokazioa EL (European Lotteries) erakundearen esparruaren eta estandarren arabera ziurtapenean gauzatzen da, eta kanpoko ikuskaritza independente batekin berritzen da. Ziurtagiri horretatik WLA ziurtagiria lortzen da, eskakizun-maila gorenean (4. mailan). 2022an, WLA eta EL joko arduratsuaren ziurtagiriaren

derrigorrezko hirurteko berritzeari ekin zitzaion, 2021eko ekainean onartu zen ELren estandarren bertsio berria eta zorrotzagoa kontuan hartuz.

Gainera, ELri dagokionez, joko arduratsuaren ziurtagiria lortzen den bosgarren aldia izanda, zigilu berezi bat eman zen, ziurtagiria bost aldiz lortu duten loteriei bakarrik ematen zaiena.

Joko arduratsuaren esparru globalari dagokion ikuskaritzan, 99,18ko lerrolatze-maila egiaztatu zen, eta berriro ere agerian geratu ziren ONCEk arlo honetan dituen heldutasuna eta konpromisoa.

Konpromiso hori Joko Arduratsuaren Politikaren eta gorago aipatutako ziurtagiriaren ebaluazio- eta jarraipen-sistemen bidez egituratzen da. 2021eko martxoan, ONCEko Kontseilu Nagusiak ONCEren **“Joko Arduratsuaren Programaren”** bertsio eguneratu bat onartu zuen, joko seguru eta arduratsuekin dugun konpromisoaren erreferentzia dena. Esparru Programaren garapen gisa, ekitaldi bakoitzean “ONCEren joko arduratsuaren arloko urteko jardura-plana” onartzen da.

Esandako ‘Esparru Programak’ berau garatzen duten hainbat dokumentu biltzen ditu:

- ONCEren Joko Arduratsuaren Politika. Joko Arduratsuaren Batzordeak koordinatzen du: diziplina anitzeko organoa da, eta joko arduratsuekin lotutako helburuak betetzeko konpromisoak eta jardun-ildoak zehazten ditu, kontsumitzaileen babesa ziurtatuz, eta aldian-aldian berrikusten da, egindako auditorien emaitzak eta identifikatutako interes-taldeekiko hartu-emanetan lortutakoak kontuan hartuz.
- Marketinarekin eta merkataritza-komunikazioekin lotutako Joko Arduratsuko jardunbide onenei buruzko gidalerroak: horien helburua da ONCEren marketineko eta merkataritza-komunikazioko edukiak eta estrategiak garatzeko ezinbestean ezagutu eta bete behar diren jardunbideak identifikatzea, nabarmentzea eta biltzea.
- Joko-jokabide desordenatuak detektatzeko protokoloa: Canal JuegosONCEn arrisku-jokalaritzat identifikatuta dauden pertsonen zuzendutako neurrien multzoa, haien jokaera kontsumo-parametro osasungarriagoetara berbideratzeko.
- Loteria-produktuen arriskua ebaluatzeko tresna: produktu baten diseinuan ustezko arrisku handiko maila detektatzen du gehiegizko arriskua objetibatzen eta prebenitzen dituzten parametro zientifikoaren multzo bat aplikatuz. Analisiaren ardatza produktu berriak eta aldatu direnak berrikustea da, haien arrisku-maila onargarria den egiaztatzeko, ONCEren Joko Arduratsuaren Batzordearen definizioaren arabera.

55,3€
Sarien ordainketa

2,6€
Langileen partaidetza-prima
eta programa berezien
garapena



22,3€
Salmenta-agenteen soldatak

10,3€
Langileen ordainketa eta
kudeaketa gastuak

9,5€
Gizarte zerbitzuak



Horrez gain, ONCEk hainbat komunikazio-kanal jartzen ditu kontsumitzaileen eskura iradokizunak, kexak eta/edo erreklamazioak adierazteko: Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua (BAZ); telefona, (91 125 34 12 zenbakiaren bidez); posta elektronikoa (sacliente@juegosonce.es helbidearen bidez); soi@once.es ONCEren Informazio Bulegoa; ONCEren Lurralde Zentroak eta Agentziak; sare sozialak; Autokontrolarekiko harremana, publizitate-kanpainiei dagozkien eskaerak edo eskakizunak jasotzeko edo hirugarrenek egindako eskaeretatik abiatuta; edo once.es webgunean atondutako salaketa-kanala.

2020tik, Kalitate, Segurtasun eta Joko Arduratsuko Unitatea arduratzen da, besteak beste, ONCEren Gizarte Erantzukizun Korporatiboko estrategiak gauzatzen direla bermatzeaz, joko arduratsuari dagokionez; halaber, estrategia definitzen du eta **Joko Arduratsua Urteko Jarduera Plana egiten du**. ONCEk ikerketa bultzatzen du herritarrek joko arduratsua kontzeptua uler dezaten, bai eta gehiegizko jokoarekin zerikusia duten portaera patologikoekin lotutako arazo eta ondorioak eta horiek saihesteko neurriak ere.

Horren harira, 2020an, Madrilgo Unibertsitate Konplutensearekin hitzarmen bat sinatu zuen “Joko arduratsuari eta haren komunikazioari buruzko Ikerketa Katedra Berezia” sortzeko, eta 2022ko abenduan berri zuen hitzarmena. Hori guztia sektorean erreferentzia bihurtu den webgunean jaso da: <https://catedraonceucm.com/>

Katedrak garatutako mugari nagusien artean dago bezeroekiko komunikazioak hobetzeko egin zuen ikerketa zientifikoa, batez ere Interneteko gehiegizko kontsumoa egin dezaketen bezeroei dagokienez, lege-eginduetan oinarritzen ez den harreman lagunkoiagoan oinarritutako hartu-emanak eta pizgarri positiboak sustatuz.

ONCEren Joko Arduratsua eredu eta Katedraren lanaren lehenengo emaitzak Komunikazioari eta Osasunari buruzko Nazioarteko I. Biltzarrean aurkeztu ziren, hainbat herrialdetako interes-talde nabarmenen aurrean.

Era berean, Katedrak “Focus Group Joko Arduratsua Txostena” ikerketa egin zuen, hainbat komunikazio-piezatan Joko Arduratsuari buruz azaldutako mezuak jokalarientzat behar bezain argiak eta adierazgarriak direla egiaztatzeko, bereziki gazteentzat; hau da, komunikazioek ONCEk merkaturatzen dituen produktuen kontsumo osasungarria eta arduratsua sustatzen duten baloratu zuen, **gehiegizko edo ordenik gabeko jokaeren arriskua saihesteko**.





Horrez gain, 2022an honako hauek gauzatu ziren:

- Arriskua aztertzekeo tresnaren etengabeko hobekuntza diseinuan eta edukian. Horren bidez, merkaturatutako produktu berriak eta aldatutakoak aztertu ziren, eta arrisku-maila onargarriko produktu-zorro bat izan da emaitza. 53 produktu berretsi ziren.
- “JuegosONCE.es” webguneak zenbait elementu mugatzaile ezartzen ditu, nazioartean arrisku-jokaeren patroiak minimizatzekeo eraginkorrenzat hartutakoak, hain zuzen. Horren harira, honakoak nabarmendu behar dira:
 1. Joko arduratsuaren atal espezifiko bat etengabe eguneratzea, indarreko araudiarekin bat etortzekeo. Horretarako, honakoak hartzen ditu barne: joko arduratsuari buruzko politika, autodiagnostikorako test azkarra eta tresnarako esteka, joko arduratsuari buruzko liburuxka, Fejarri buruzko aipamena...
 2. Arriskua ekar dezaketen jokaera-ereduak identifikatu eta minimizatzea ahalbidetzen duten parametroen jarraipena eta ebaluazioa egitea, hala nola: webgunean batez beste igarotako denbora neurtzea; autodiagnostikorako galdetegira egindako bisitak; gastu eta karga mugetara heltzen diren erabiltzaileen kopurua.
 3. Joko-jokaera desordenatuak antzematekeo protokoloa.
- Lerrokatze-maila gorena lortu da (% 100) JuegosONCE.es-en webguneko ikuskaritzan, EL Joko Arduratsuaren Estandarraren parametroei jarraituz.
- Joko arduratsuari buruzko prestakuntza enplegatuentzat eta CFC banatzaileentzat, saltzaileen kasuan indar berezia eginez, eta funtsezkeo elementuak indartuz, hala nola gehiegizkeo joko-portaerak idenfikatzekeo zantzuak, tratamenduzentrotara deribatzekeo buruzkeo informazioa, eta abar.
- Joko arduratsuari buruzkeo prestakuntza etorkizunean erantzukizun-postuak izango dituztenentzat, baita sartu berrientzat ere.

- Agente saltzaileentzakeo indartze-jakinazpenak, saltokikeo terminalaren (TPV) bidez eta barnealdizkarietakeo artikuluen argitalpenaren bidez.
- ONCEk zenbait gidalerro onartu ditu, publizitate eta marketinaren gainean, joko-jardueren komunikazikeo komertzialei buruzkeo 958/2020 Errege Dekretuan eta WLAREN jardunbide onenetan oinarrituta. Gidalerro horiek bermatzen dute merkataritza-estrategiek eta publizitate-kanpainek testuinguru segurua eta arduratsua eskaintzen diotela jokalaria, eta arreta berezia eskaintzen diete kolektibo ahulenei, adingabeei kasu.
- Telebistakeo merkataritza-kanpaina guztietan, emititu aurrekeo ebaluazioa egin du Autocontrolek (Copy Advice)
- Merkataritza-komunikazikeoek eta aurreinprimatutakeo produktuek, joko arduratsuekin lotutakeo mezuak dituzte, “+18” eta “Jokatu arduratsu” lelopean.
- “JuegosONCE.es” webgunearen pribatutasun-politikarekin bat etorrita, merkataritza-komunikazikeoak bitartekeo elektronikeo bidez bidaltzekeo, alde zuzenetik pertsonak berariazkeo baimena eman behar du, eta edozein unetan ezeztatu dezake.
- FEJARekin (Zorizkeo Jokalari Errehabilitatuen Espainiakeo Federazioa) lankidetzan, honakeo jarduera hauek egin dira:
 1. FEJARek urtero antolatzen duen batzarrean parte hartzea, bai eta urtean zehar egindakoetan ere: bata, gazteena, eta bestea, boluntarioena.
 2. Gizartekeo jakinaraztea gehiegizkeo jokoaren ondorioak eta prebentzioa: irratan, sare sozialetan, RTVERen mikroespazioan eta salmentagunean.
 3. ONCEkeo langileentzakeo joko arduratsuari buruzkeo prestakuntza-edukiak berrikustea.
 4. Joko arduratsuari buruzkeo neurriak eta informazioa “JuegosONCE.es” webgunean jartzea, FEJARen webgunerakeo esteka eta laguntza-telefonoa barne.
- Agente saltzaileek joko arduratsuari buruzkeo liburuxka bat eman behar diete jokoari lotutakeo

portaera patologikeo dutelakeo zantzuren bat hautemandakeo bezeroei.

- Otsailaren 17keo Egunerokeo Kupoia Joko Arduratsuaren Nazioartekeo Eguna eskaini zitzaion, eta ONCEren sare sozialetan eta saltokietan sustatu zen.
- Joko Arduratsuari buruzkeo liburuxken sorta berri bat birdiseinatu eta banatu zen azken bezeroarentzat.
- BZAREN (Bezeroaren Arretarako Zerbitzua) arduradun eta koordinatzaileentzakeo prestakuntza eguneratua eta komunikazikeoak jasotzekeo kanala, zeina joko arduratsuari buruzkeo informazioa eta kezak eta iradokizunak ebaztekeo bideak gehitu dituen.
- Interes-taldeekikeo elkarrizketa-estrategiarei eutsi egin zaio (enplegatuak eta agente saltzaileak, administrazikeo publikoak eta arautzaileak, kontsumitzaileak, herritarrak, ikertzaileak, joko-jokabide desordenatuak dituzten pertsonak, etab.) eta norabide biko kanalak ezarri dira.
- Jokoa Antolatzekeo Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan aritzea, Joko Arduratsuaren Aholku Batzordekeo kide gisa.
- Gizartearekikeo elkarrizketari eustea: publizitate kanpainak, produktuak, liburuxkak, webgune ofiziala eta ekintza espezifikeo eta iraunkorrek sare sozialetan.
- Joko arduratsuekin zerikusia duten naziokeo eta nazioartekeo batzar, mintegi eta biltzarretan parte hartzea, hala nola:
 1. ELREN eta WLAREN Joko Arduratsuari buruzkeo urtekeo mintegia, aurten Amsterdamen egina.
 2. ELREN Joko Arduratsuari buruzkeo lan-taldea, joko arduratsuaren estandarrak eta GKEko jardunbideak hobetzekeo.
 3. Joko Arduratsukeo azterlanei eta politikei buruzkeo Batzar Europarra, Oslon.
- Joko arduratsuari buruz, estatu zein nazioarte mailakeo albiste garrantzitsuen artxibo bat mantentzea. Artxibo hori Joko Arduratsuaren Batzordearekin partekatzen da, bai eta ONCEren Joko Arduratsuaren Lantaldearekin ere, eta langile guztiek kontsulta dezakete.





3.2 ONCE Fundazioa

Espainiako itsuen elkartasunari esker, 1988an fundazio-eremu bat sortu zuten, itsutasunaz bestelako desgaitasuna duten gainerako pertsonen estaldura emateko, historikoki hori egiten ari bazen ere, batez ere enpleguaren arloan. 1988an, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeko eta horiekin lankidetzan aritzeko **ONCE Fundazioa** sortu

zen, eta, hasieratik, loteria-salmenten zenbateko osoaren % 3ko hornidura izan zuen. Horren ondorioz, munduan hornikuntza finantzario onena du zeregin horretarako. Horren kudeaketarako, Patronatu bat du, eta bertan daude ordezkaturako pertsona horiek biltzen dituzten erakunde nagusiak, bai eta beste erakunde batzuk ere.

ONCEren zuzeneko ekarpenarekin batera, **ONCE Fundazioa** 2000. urtetik Bruselatik, Europako Gizarte Funtساتik (EGF), datorren finantziazioaren kogestioan aritzen da eta urtez urte erakusten du nola biderkatu hornidura horren inpaktu soziala. Gaur egun, estatus bikoitza dauka, zeren eta Gizarte Inklusiorako eta Gizarte Ekonomiarako Programa Operatiboan - POISES- eta Gazte Enplegurako Programa Operatiboan -POEJ- Erakunde Onuraduna izateaz gain, Bitarteko Erakundea baita.

Gizarte-inbertsio horrek prestakuntzan, laneratzean eta irisgarritasun unibertsalean du azken helburua, eta desgaitasuna duten pertsonen elkarte-ehunera iristen diren proiektuen bitartez bideratzen da erabateko eraginkortasunez gauzatu. **2022an, 2.584 proiektu onartu ziren**, desgaitasunarekin lotutako gizarte zibila sektorearen dinamizatzaile eta gizarte-inklusioko palanka izatea lortzeko modu bat.

Onartu ziren proiektuei esleitutako zenbatekoaren % 70,3k enplegua eta enplegurako prestakuntza ditu jomuga, eta gainerako % 29,7 irisgarritasun unibertsalari lotutako ekintzetara dago zuzenduta. Onetsitako eskaeren % 27,4 pertsona fisikoek egindako eskaerei dagozkie, laguntzen % 63,9 desgaitasun alorreko entitateetarako izan da; eta, azkenik, gainerako % 8,7 desgaitasuna duten pertsonen aldeko ekimen propioko programetara zuzendu da.

2022an, ONCE Fundazioaren Arlo Exekutiboko erakundeek 200 hitzarmen sinatu zituzten. ONCE Fundazioak hainbat motatako 171 hitzarmen kudeatu

zituen, eta Inserta Empleo eta Innovación elkarteek 29, guztiak prestakuntzarekin eta enpleguarekin lotutakoak.

Horrela, **ONCE Fundazioak** bere eginkizun behinena betetzen du, **2022an jasotako 115,6 milioi euroko hornidura globala desgaitasuna duten pertsonen erabateko inklusioa lortzera bideratuta**. Ekitaldi bakoitzean finantziazio-iturri nagusia ONCEren jokoak merkaturatzearen ondorioz eskuratutako diru-sarrera gordinen % 3tik dator -ekitaldi honetan 72,8 milioi eurokoa izan zena. Horri gehitu behar zaio Europako Gizarte Funtساتik (EGF) datozen diru-sarreraren (30,9 milioi) kogestioa, zeina funtsezko ituna izateaz gain, komunitatearen esfortzuak gure herrialdean nola biderkatu eta emaitza nabarmenak nola lortu erakusten duen adibidea baita. Halaber, eta gutxiago nabarmentzen den modu batean, beste diru-sarrera txikiago batzuk ere baditu, besteak beste, "Colabora" (<http://colabora.fundaciononce.es>) microwebgunearen bidez egindako dohaintzetatik datozenak.

Hori guztia ahaztu barik Espainian desgaitasuna duten pertsonen asoziazionismoa bultzatzeko eta gizartea modu globalean sentsibilizatzeke gauzatzen duen zeregina. Horretarako, lankidetzan aritzen da Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordearekin (CERMI) eta elkarrizketan eta harremanetan aritzen da jomuga dituen xedeak lortzeko garrantzizkoak diren erakunde, pertsona fisiko, instituzio eta bestelako organizazio guztiekin.





Hona hemen 2022ko lorpen eta datu garrantzitsuenetako batzuk:

- 88,6 milioi enplegu eta prestakuntzara bideratuta
- 57 hitzarmen sinatu dira hezkuntza inklusiboaren arloan, horietako 34 esparru-hitzarmenak dira eta 23 unibertsitateekin eta bestelako entitateekin sinatutako hitzarmenak
- “Por Talento Digital/Talentu Digitalaren Alde” prestakuntzarako etengabeko programa. 887 prestakuntza-ekintza, 5.558 plazarekin aurrez aurreko zein onlineko prestakuntzetan.
- Goi-mailako hezkuntzarekin eta inklusioarekin lotutako 77 ekitaldi, aurrez aurrekoak zein birtualak.
- 1044 beka eman zaizkie desgaitasuna duten ikasleei, bereziki, unibertsitate-ikasleei. Hona hemen nabarmenenak:
 1. 110 beka eman dira “Oportunidad al talento/ Aukera bat talenturako” beka-programaren IX. edizioaren barruan (masterra eta gradu ondokoa, nazioarteko mugikortasuna, doktoretza, ikerketa eta ikasketa, eta kirola, eta, lehenengo aldiz, lanbide-heziketa).
 2. 255 beka desgaitasuna duten unibertsitate-ikasleentzat, enpresetan praktikak egin ditzaten, ONCE-CRUE Fundazioaren praktika-bekak emateko programaren VI. edizioaren barruan.
 3. 35 beka 18 eta 30 urte bitarteko desgaitasundun gazteentzat, atzerrian hizkuntzak ikas ditzaten
 4. 409 beka desgaitasun intelektuala duten gazteentzat, “Unidiversidad” programaren barruan

5.44 beka unibertsitateko titulazioa eta desgaitasuna duten emakumeentzat RADIA programaren barruan, teknologia digitaletan prestatzeko.

- Gainera, Fundazioak, Desgaitasunari buruzko Errege Patronatuaren erakunde laguntzaile gisa, Inklusiorako Letizia Erregina Programako 944 beka kudeatu zituen.
- 27 milioi, irisgarritasun unibertsalaren eta berrikuntzaren arloetara zuzenduta. Horiei esker honakoak gauzatu dira, batez ere:
 1. 84 hitzarmen sinatu dira irisgarritasun unibertsalaren arloan.
 2. Garraio kolektiboko 48 ibilgailu eta erabilera partikularreko 130 ibilgailu erosteko laguntza.
 3. 1.031 proiektu onartu ziren autonomia pertsonala sustatzeko.
 4. 37 proiektu garatu dira berrikuntza sustatzeko.
 5. 165 txosten egin dira irisgarritasun unibertsalaren arloan, eta 78 aholkularitza-ekintza erakunde publiko zein pribatuetan.
 6. 24 argitalpen prestatzen parte hartu da.
 7. AccesibleEU Irisgarritasunaren Zentro Europarra kudeatzeko kontratua lortu da.
- Mujeres en Modo ON-VG/ Emakumeak ON-VG Moduan programaren prestakuntza- eta enplegu-planak genero indarkeriaren biktimak diren 642 emakume desgaitu artatu zituen, horietatik, 259k lortu zuten enplegua 2022an.
- 12 proiektu onartuta, 1,8 milioi euro bideratu ziren kirol paralinpikoen aldeko kirol-lehiaketak babesteko.





3.3 Ilunion

Ilunion ONCE Gizarte Taldearen enpresa- eta gizarte-proiektua da. 2015ean jaio zen **ONCEren** eta **ONCE Fundazioaren** enpresa-jarduerak batzean. Abiatu zenetik, gizarte-eragin handiko enpresa-eredu bakarra eta desberdina sendotzea lortu du, gizarte-ekonomian erreferentzia dena eta pertsonetan eta bikaintasunean oinarritzen dena.

Ilunion osatzen duten enpresen helburu behinena da desgaitasuna duten pertsonentzako kalitateko enplegua sortzen laguntzen duten enpresa-ekintza berritzaileak garatzea, balio ekonomikoen eta sozialen arteko orekari eutsiz. Enpresa-multzo berritzaile, iraunkor eta arduratsua.

Ilunioneek jarduera zabala eta dibertsifikatua garatzen du 50 negozio-lerro baino gehiagotan, sei dibisiotan banatuta (zerbitzuak; hotel- eta ospitale-arloa; aholkularitza; soziosanitarioa; merkaturatzea eta ekonomia zirkularra). Horren guztiaren ondorioz sortzen da herritarrengandik oso hurbil dagoen eta ikusgarria den eskaintza integrala, malgua, norberaren neurrikoa eta, eskulanari dagokionez, intentsiboa.

Dibertsifikazioari esker, Ilunion gai da hainbat sektoretako enpresentzat neurrirako irtenbide integralak eskaintzeko, hala nola hotel, retail, zerbitzu, energia, aholkularitza, garraio, logistika, ospitale, industria, soziosanitario, farmazia, hezkuntza, banku, aseguru eta telekomunikazioentzat.

Ilunioneek 480 lan-zentro ditu Espainia osoan zehar, probintzia guztietan eta hainbat lekutan,

eta, kokatzen diren tokietan, tokiko ekonomiaren motor eta enplegua eta jarduera finkatzeko eragile bilakatzen dira. Zentro horien % 49,6 (238) gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Bereziak (CEE) dira, hau da, legeak ekonomia sozialeko entitate-moten artean jasotako zentroak, langileen % 70ek baino gehiagok desgaitasuna izateagatik.

Ezaugarri horrek balio bereizgarri eta lehiakorra gehitzen dio Ilunionen eskaintzari, zeren eta bazkide eta bezeroei aukera ematen baitie bere balioak eta enpresa- nahiz gizarte-proiektua partekatzeko eta, aldi berean, desgaitasuna duten pertsonen enpleguari buruzko indarreko araudia betetzen laguntzen baitu.

Nabarmenezkoa da Ilunioneek kalitateko enpleguaren alde egiten duen apustua, horren erakusgarria da 238 enplegu-zentro berezi horietatik 18 soilik (% 7,6) arautzen direla enplegu-zentro berezien hitzarmen kolektiboen arabera (estatukoak edo autonomia-erkidegokoak). Gainerakoak hitzarmen kolektibo sektorialen edo enpresa-hitzarmenen arabera arautzen dira, eta hitzarmen horiek onuragarriagoak izaten dira langileentzat.


Horrez gain, Ilunioneek nazioarteko bokazio argia du, gero eta indartsuagoa, gizarte- eta ekonomia-ekintzatarako bere eredu Espainiatik kanpo esportatzeko eta ekimen sendoak ditu jadanik Portugalen eta Kolonbian, non 349 pertsonak (horietako 193 desgaitasunen bat dute) lan egiten duten.

2022an, Ilunioneek 1.000,2 milioi euroko fakturazio historikoa lortu zuen, 2021ean baino % 10,6 gehiago (oraindik pandemiaren osteko efekturen bat izan zuen urtea), eta bere plantillako langileen % 42,8 desgaitasuna duten pertsonak izatea lortu zuen, markaren eta ordezkatzeko dituen balioen elementu bereizlea, Espainiako gizartean eta nazioartean txalotua.


Azken urteotan, Ilunioneek bere asmoa handitu du eta guztiok barne hartzen dituen mundu hobe bat lortzeko lan egiten du. Horri esker, desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko duen ardatz nagusia

alde batera utzi barik, 2022an genero-indarkeriaren biktima diren 119 emakume, 28 errefuxiatu ukrainiar eta 293 pertsona zaugarri sartu ditu plantillan. 2022a ixtean, plantillak 36.770 langile zituen, ekitaldian 1.000 lanpostu berri baino gehiago sortu ondoren.

Bestalde, ekitaldian 91 milioi eurotik gorako inbertsio garbiak egin ziren, hala nola Ilunion Hotels kateko hotel bat (Lanzarote, Kanariar Uharteak) eta Servitelco, Contact Center arloko konpainia, erostea; horrek esparruko liderren artean sendotu egin zuen.



**ESPAINIA
PORTUGAL**



KOLONBIA





4

LANKIDETZA, berdinagoak izateko

- 4.1 Berdinak aukeretan
- 4.2 Berdinak hezkuntzarako sarbidean
- 4.3 Berdinak aisialdian, kulturaren eta kirolean



Egin klik kapitulu bakoitzean





4.1 Berdinak aukeretan

ONCE Gizarte Taldea, datuetan ikusi den bezala, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzen du, eta, horretarako, hainbat ekimen ditu, Aukera Berdintasunerako Behatokia buru dutela. Behatoki hori Kontseilu Nagusiaren Berdintasunerako, Giza Baliabideetarako eta Kultura Instituzionalerako eta Gizarteratze Digitalerako lehendakariordetzaren mende dago.

Behatoki horrek dinamizatzen ditu gai horiei buruzko ekintza guztiak ONCE Gizarte Taldean, adibidez, Emakumearen Nazioarteko Egunaren ospakizuna, non hainbat hizlariaren parte-hartzea eta estatu osoko 300 pertsonaren konexio telematikoa izan zituen mahai-inguru bat egin baitzen. Martxoaren 3an izan zen, “Emakumea, enpresa-ehunaren zati bat” lelopean. Ekitaldi nagusi horren osagarri izan ziren lurraldeetan garatutako 30 jarduera.

Txosten honen hasieran aipatua dugu gizarte-esentzia definitzen duela ONCE Gizarte Taldea osatzen duen familia, eta, halaber, gure ekintza guztia herritarren alboan garatzen dela. Horrek gizartearen konfiantza-plusa ematen digu, zeren eta dena lankidetzatik sortzen baita, berdinak garelako kontzeptutik, desberdintasunarekin eta aniztasunaren errespetuarekin ezinbestean bateragarria den kontzeptutik, alegia.

Gure ekintzak lankidetzaren ertsenplu dira, batzen jarraitzen baitute, nork bere aletxo ematen jarraitzen baitu, eta, ildo horretan, gaitasunak bultzatzen ditugu, eskubidetik abiatuta, berdintasunerantz aurrera egiteko, berdintasuna talentua agerian uzteko, berdintasuna hezkuntzan, kulturaren edo aisialdian parte hartzeko, berdintasuna bizitzaren alor guztietan.



Horrez gain, hainbat mintegi antolatu zituen: lehenengoa ekainaren 27an egin zen, Trebetasun digitalak, enplegua lortzeko zubia izenburupean. Bertan, emakumeen trebetasun digitalak oro har eta, are gehiago, desgaitasuna duten emakumeen trebetasun digitalak indartzeko komenigarritasuna azpimarratu zen. Bigarren mintegia azaroaren 3an egin zen, “+Oportunidades - Brechas” izenburupean.

Gainera, ONCEk bere gizarte-eragineko lana egiten jarraitu du 20 milioi kupoi baino gehiagoren irudiaren bitartez: Soldata Berdintasunaren Eguna: otsailaren 22an; Emakumearen Nazioarteko Eguna: martxoaren 8an; Pertsonen Salerosketaren aurkako Europako Eguna: uztailearen 30ean; eta Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna: azaroaren 25ean.

Eta lanean dihardu “Discapacidad con Talento en Femenino/Talentudun Desgaitasuna Femeninoan” izenburupean aurretik eratutako taldeetan eta horren hiru proiektutan: ‘Venta con talento en femenino/ Talentudun salmenta femeninoan’ emakume-saltzaileen kopurua handitzeko asmoa duena; ‘Ilunion es para ti’/ Ilunion zuretzat da’, konpainiaren operatiba- eta ekoizpen-postuetan emakumeen kopurua handitzera bideratuta; eta ‘Woman in Tech’, emakumeak teknologia-arloetan sartzea bilatzen duena.

Horri guztiari gehitu behar zaio Administrazioaren eta Hirugarren Sektorearen ordezkariarekin egindako bilerak, elkarlanak eta topaketak, berdintasun-arloko zenbait gai jorrazteko:

- ClostinGap klusterrean laguntzea eta parte hartzea.
- Madrilgo Psikologiaren Elkargo Ofizialarekin batera eremu judizialean sartzea errazten duten bi gida argitaratzea, Pilar Llop Justizia ministroarekin aurkeztuak.
- Akordioa Psikologoaren Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiarekin



- 2017an Europako Parlamentuaren Espainiako Bulegoarekin sinatutako akordioa betearaztea («¿Dónde están ellas?/Non daude emakumeak?» proiektuaren esparruan).
- Elkarte hauen genero-lantaldeetan sartzea: Hirugarren Sektoreko Plataforma (LAP), Espainiako Estatuan Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurka Borrokatzeko Europako Sarea (EAPN-ES), eta Gizarte Ekintzako GKEn Plataforma (POAS).
- Lankidetzaren hitzarmena Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarekin.

2022ko uztailean arte indarrean zegoen Berdintasunerako Ekintza Plana modu positiboan gauzatzen jarraitu zen, eta honako neurri hauek garatu ziren:

- Berdintasun Agentearen figura ezartzea.
- Dagokion arloan ordezkartza gutxien duen sexuko pertsonaren kanpo-hautaketa eta barne-sustapena.



- ONCEko emakume-langileen lidergoa eta ahalduntzea.
- Ministerioarekin edo beste erakunde batzuekin hartutako akordioei eta konpromisoei atxikitzea
- Aukera-berdintasunaren aldeko jardunaldietan, topaketetan eta mintegietan parte hartzea.
- Barne-neurrien aplikazioa ebaluatzea, genero-indarkeriaren kasuetan.
- Berdintasun-arloko egoeraren diagnostikoa egitea.
- “Berdintasuna enpresan” bereizgarria ematearen ondoriozko ekintzak.
- Prestakuntza-ikastaroetarako berdintasun-gaiak eguneratzea.
- 2022ko uztailean, ONCEren IV. Berdintasun Plana, 2022-2025, sinatzea, 11 helburu eta 37 neurri dituena.



ONCE Gizarte Taldeko arlo guztiek lanean jarraitu dute aukera-berdintasuna lankidetzan eta modu koordinatuan sustatzeko, zenbait ekintza batera eta beste batzuk arloz arlo garatuz. Horren barruan langileentzako prestakuntza-, kontzientziatio- eta sentibilizazio-jarduerak daude, bai eta kanpoko jendeari zuzendutako foro eta jardunaldi ugari ere. Horren bitartez, garrantzi handia eman zaie berdintasun-arloko gaiei, eta hori oso positiboa izateaz gain, Behatokiaren helburuekin bat dator.

Nabarmendu beharreko hainbat ekimen daude: ONCE eta Inserta Empleo Fundazioen berdintasun-planak araudi berrira egokitu izana; barneko prestakuntza- eta kontzientziatio-jarduerak; barne-jardunaldiak eta -tailerrak; sariak eta aintzatespenak jasotzea; eragin politikoan sakontzeko ekimenak eta bilerak; hainbat erakunderekin lankidetzak-hitzarmenak sinatzea; Insertaren jarduerak, desgaitasuna duten eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei enplegua bilatzen laguntzeko; eta berdintasunaren arloko hainbat ziurtagiri lortzea, gai horri buruzko jarduerak egiaztatzen dituztenak. Ildo horretan, azpimarratzekoak dira “Mujeres en Modo ON-VG/Emakumeak ON-VG Moduan” eta Inserta Foroa proiektuak.

Ilunionen aipatzekoa da kanpo-erakundeekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta bazterketa-arriskuan dauden bestelako kolektiboak laneratzen laguntzeko, bai eta langileentzako prestakuntza- eta kontzientziatio-ekimen ugari eta kanpoko esku-hartzeak ere. Horien isla dira ONCE Gizarte Taldeak jasotako aintzatespenak, egindako argitalpenak, ospe handiko jardunaldietan izandako parte-hartzea eta bisibilizazioa, lortutako ziurtagiriak eta

jardunbide onenen adibide asko.

Halaber, nabarmendu beharrekoa da Factor W Diversity Summit 2022 kongresuaren VII. edizioan parte hartu izana, bi mahaitan izandako presentziarekin. Kongresu hori Aniztasunaren eta Inklusioaren arloko erreferentziatzeko ekitaldi nazionala da.

Ilunionez “Ilunion es para ti/Ilunion zuretzat da” proiektua jarri zuen abian, operatiba eta produktiboko lanpostuetan emakumeak sartzen eta garatzen laguntzeko. Ekimen honen bidez, konpainiak 416 lanpostu berri sortu ditu emakumeentzat (408, desgaitasuna dutenentzat) sektore maskulinizatuetan, eta 3 emakume postu berrietan hasi dira. Helburu horrekin berarekin, “Ilunion Women in Tech” proiektua abiarazi du. Horri esker, 23 emakume sartu dira prestakuntza teknikoa behar duten lanpostuetan eta IKT arloetan, eta 21 funtzio berrietan hasi dira.

ONCE Latinoamerikarako Fundazioari (FOAL) dagokionez, programen eta proiektuen inpaktu-adierazleen sistema hobetu dute, betiere genero-ikuspegia zeharka jasoz. 2022.urtea nabarmena izan da genero-arloan, batez ere Latinoamerikan ikusmen-desgaitasuna duten emakumeak ahalduntzeko “FOAL Violeta” programa sendotu delako.

Hezkuntza-arloan, Fundazio honek sustatzen dituen programa eta proiektu guztiek berdindatzen dituzte behar duten ikasle guztiak, generoa edozein dela ere, nahiz eta adierazleen sistemari esker, generoaren arabera bereizitako datuak dauden. Genero-ikuspegia enplegu-proiektuetan ere jasota dago etapa guztietan: detekzioa, prestakuntza, enpresetan sartzea, autoenplegua sustatzea, eta abar.





4.2 Berdinak hezkuntzarako sarbidean

ONCE jaio zenetik, eta lehenago ere, pertsona itsuek hezkuntzan izan dute helburua, parekorik gabeko berdintasun-palanka gisa. Hori dela-eta, ONCE Gizarte Taldean etorkizuneko helburu da, pertsonak beren gaitasunek daramatzaten lekuraino heltzeko aukera izan dezaten, eta, batez ere, oztopo fisikoek edo mentalek -gainditzeko gogorrenak- ilusioak zapuztu ez ditzaten.

Edozein motatako desgaitasuna duten ikasleak ikasgeletan egotea da ikus dezakegun berdintasun-palankarik onena, eta, gainera, oinarrizko zerbitzu baterako sarbide-eskubidetik lortutako berdintasunaren isla da. ONCEk eta ONCE Fundazioak arlo honetan egiten duten lanak ez du galgarik: inklusio goiztiarretik hasi eta unibertsitateraino, pertsona itsuengandik hasi eta adimen-desgaitasuna dutenenganaino, guzti-guztiek dute saiatzeko eta beren talentuak eramango dituen lekura iristeko eskubidea.

ONCEko gizarte-zerbitzuek hezkuntza-estaldura ematen diete ikusmen-desgaitasuna duten 7.271 ikasleri, autonomia-erkidegoko hezkuntza-zerbitzuekin elkarlanean, eta horrela lortu da ikasle horien % 99,5 ikasgeletan integratuta egotea. Erakundeko profesionalek lan egiten dute ikasgelan ikasle itsuek edo ikusmen-urritasuna dutenek prestakuntza jaso dezaten eta hezkuntza-baliabide fisikoak eta digitalak izan ditzaten, bai eta erabiltzen dituzten lanabes teknologikoak eskuragarri izan ditzaten ere. Hezkuntza Eduki Digitaletarako ONCEren Irisgarritasun Taldeak (ACCEDO) 2022an honako ekimen hauek gauzatu ditu:

- Teknologia hezkuntzan duen erabilerari buruzko lantalde batean parte hartzea, ONCE Fundazioarekin eta Microsoftekin batera.

- Irisgarritasun digitalari eta erabilgarritasunari buruzko ahokularitza ematea hainbat hezkuntza-entitateri edo/eta teknologia-arloko entitateri.
- ONCEko eta ACCEDO Taldeko profesionalei zuzendutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzea.
- Gai honi buruzko ekitaldi eta batzarretan parte hartzea
- “Ikusmen-desgaitasuna duten ikasleei zuzendutako hezkuntzako komunikazio-tresnen eskuragarritasunaren analisia” izeneko azterlana egitea, eta “Ikasgelan erabili ohi diren hezkuntza-plataformek ikusmen-desgaitasuna duten ikasleentzako eskuragarritasunaren analisia” azterlana hastea.
- Tifloinnova 2022 ekimenean parte hartzea
- Ehun bat ikasleri EVAU prestatzen eta EVAUko azterketetan zuzeneko arreta ematen laguntzea. Ikasle horiekin batera, 2021/2022 ikasturtean ikusteko zailtasunak dituzten 585 ikasle atzerritarri eman zaie arreta, hainbat hezkuntza-mailatan (artatzen diren ikasleen % 8), ONCEk inklusio-zeregin horretan duen konpromisoari jarraituz, mugak kontuan hartzen ez baititu. Gainera, Madrilgo Unibertsitate Autonomoari atxikitako ONCEren Fisioterapiako Unibertsitate Eskolari eutsi eta berau sustatzen dugu. Urtero, eskola horretatik ateratzen dira munduko “fisiarik” onenak eta graduatuen ia % 100 laneratzen dira, “Handicapetik bikaintasunera” aldarripena.

Unibertsitatera eta haratago

Lerro hauetan esan dugunez, gainerako ikasleen kasuan bezala, helburua norberaren talentuak, ahaleginak eta lanak eramango duen lekura heltzea baino ezin da izan, desgaitasunagatiko diskriminazio-arrazoiek mugatu barik. Bakoitzak nahi eta ahal duen lekura hel dadila da helburua, eta graduko ikasketak, unibertsitatea edo goi-mailako bestelako ikasketak ezin dira albo batean geratu. Horregatik egiten dugu ahalegin handia desgaitasuna duten ikasleen presentzia unibertsitatean eta goi-mailako ikasketak-zentroetan bultzatzeko, gainerakoen maila berean, mota guztietako laguntzak eta babesak emanaz.

2022an 977 beka eman ziren:

- 409 desgaitasun intelektuala duten gazteentzat izan ziren.
- 255 ONCE-CRUE Universidades Españolas Fundazioak eman zituen, praktikak egiteko.
- 159 bikaintsun-bekak izan ziren, horietako 27 hizkuntza-arlokoak, eta horiekin batera: campus inklusiboak, zientzia-kanpalekuak, alumni Navarra, IESE, Colegios del Mundo/ Munduko Ikastetxeak...
- “Aukera bat Talenturako/ Oportunidad al Talento” programaren VI. edizioan 110 beka eman ziren graduondoko ikasketetarako, nazioarteko mugikortasunerako; kirolerako, doktoretzarako eta ikerketarako.

Horrez gain, **urtean zehar 181 bekatarari iritsi ziren Talentu Digitalaren Alde programaren esparruan 2020an abiarazi zenetik emandakoak**. Beka jasotakoetatik 67 pertsonak (21 emakume eta 46 gizon) amaitu zuten kompetentzia digitaletan eta lanbide teknologikoetan hasitako prestakuntza. RADIA programak aurrera jarraitu du. Teknologia digitalen arloko prestakuntzan ardaztutako

programa hori desgaitasuna duten emakumeak lan-ingurune digitaletan sartzen laguntzera eta esparru teknologikoetako emakume profesionalen kopurua handitzera zuzenduta dago. 44 beka eman ziren, eta **Gizarteratzeko Letizia Erregina Laguntza Programaren** barruan, 944 beka eman ziren guztira. 2022an, laguntza-programa berri bati ekin zitzaion, desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikora sartzea sustatzeko; horren bidez, laguntzak ematen dira oposaketak prestatzeko dakarren kostu ekonomikoaren zati bat ordaintzeko. Ekitaldi hau 2023an amaituko da, eta 2022an beka bana eman zaie 27 oposagileri, guztiak azterketak gainditzeko prest.





4.3 Berdinak aisialdian, kulturen eta kirolean

Berdintasunak bizitzaren arlo guztietara hedatu behar du, eta, bizi garen gizarteetan, kultura, aisialdia eta kirola ekintzarako eta bizikidetzarako funtsezko esparruak dira; beraz, desgaitasuna duten pertsonak ezin dira haietatik kanpo geratu. Pertsona horiek bizitzaren alderdi horretatik at uztea barkaezina da uneotan eta, hala sortzaileen ikuspuntutik nola kultura, aisialdi eta kiroleko parte-hartzaileen ikuspuntutik, inklusioa lortzeko lana izugarria da.

2022an, animazio soziokulturalaren eta kirol-sustapenaren arloetako ekintza-kopuruan aurreko urtean izandako gorakadak jarraitu zuten. 6.496 jarduera egin ziren, pandemia atzean utzi ostean, eta 104.476 pertsona itsuk hartu zuten parte, aurreko urtean baino %31 gehiagok. Hauexek dira 2022ko kultura-ekimen nabarmenenak:

- Tiflos literatura-lehiaketaren 36. ekitaldiaren epaia. Ekitaldi honetan, 57 lan jaso ziren, guztiak

desgaitasuna duten pertsonak eginda.

- Prometeo lehiaketaren deialdia, ikasleen sormena sustatzeko. Desgaitasuna duten 91 ikaslek hartu zuten parte.
- ZonaCreativ@ONCE gazteentzako lehiaketa berria. Kontakizun, poesia, grafika, musika eta dibulgazioko kategoriak ditu eta, guztira, 29 lan jaso dira.
- Antzerkiko eta musikako talde artistikoak biltzen dituzten 15 kultura-elkarteen emanaldiak/ antzezpenak; nabarmentzekoak dira Alkantara, Almagro eta Meridako Antzerki Jaialdian egindakoak, bai eta Aragoi ospatutako XVII. Bienala.
- ONCE Kultura Globaleko programako online ekitaldian eta Music@once lehiaketan emandako musika-emanaldiak sustatzea.
- Euro Low-Vision Europako musika-lehiaketan antzeztea: lehen postua lortu zen lehiaketaren lehen edizio honetan.
- 4.346 afiliatu bertaratu ziren Audesc bideotekara (audiodeskribapena duena), 64.206 deskarga egin ziren eta 125.659 bisualizazio streaming-en
- 7 serie, 2 dokumental eta 54 pelikula audiodeskribatu berri gehitu ziren katalogoan.
- ONCINE podcasta eta liburuei eta zinemari buruzko solasaldia sendotu dira.
- Audesc bideoteka, ONCE klubean, 894 titulu dituena
- 2022an, ONCEren Museo Tiflologikoak 10.966 bisitari izan zituen. Aldi baterako 7 erakusketa eta hainbat jarduera osagarri egin ziren, baita Museoaren 30. urteurrenaren Arte Plastikoen Lehiaketa ere.

ONCEk, gainera, berriazko fondo bat dauka afiliatuek proposatutako hainbat motatako

proiektu kultural eta artistikoak finantzatzeko (musika lanak; partiturak edo musika-liburuak; denetariko liburuak; eta abar), eta zenbait afiliatuk laguntza jaso zuten beren ekimenetarako. Horrez gain, adin guztietako pertsona itsuei edo ikusmen-desgaitasuna dutenenei zuzendutako ekintzak egin ziren Espainian zehar:

- ‘Zahartze aktibo eta osasungarria’ programa.
- “ONCE Kultura Globala” proiektua sendotzea.
- Onlineko tailerrak, gazteen sorkuntza sustatzeko.
- Gizarte-oporretarako programa, adinekoentzat eta pentsiodunentzat, 864 plazarekin, eta “Gabonetako oporrak familian 2022” programa, 231 parte-hartzaileekin.
- Adinekoen Klubek onlineko eta aurrez aurreko formatuak bateratzen jarraitu zuten, eta 2021ean baino %60 partaide gehiago izan zituzten, 5.884 pertsona izatera iritsita.



- ‘A tu lado siempre / Beti zure ondoan’ programak, nahi gabeko bakardadeari arreta ematekoak, 509 onuradun artatu zituen.

Eskola-umerik ez gorputz-heziketarik gabe

ONCE Gizarte Taldearentzat kirolaren kontzeptua oso zabala da eta lehenengo pausotatik txapeldun paraolimpikoetara iristen da. Horrengatik egin dugu ahalegina, ildo beretik, kirola oinarritik bertatik egiteko, bere desgaitasuna dela-eta, haur bat bera ere gorputz-hezkuntzako eskolatik kanpo gera ez dadin eta gure paralinpi-koek kirolari olinpikoen baldintza berberak izan ditzaten.

FEDCek (Itsuentzako Kirolen Espainiako Federazioa) lehiaketako kirol-jarduerak kudeatzen jarraitu zuen. **Zehazki, 147 jarduera egin ziren kirol-espezialitate guztietan, eta itsutasuna edo ikusmen-urritasun larria zuten 3.241 kirolarik hartu zuten parte.**

Horrez gain, gazteen topaketak egiten dira kirolean murgil daitezela, baita Kirol Eskolak ere. Horietan ikusmen-desgaitasuna duten ikasle asko, lurralde osokoak, biltzen dira osasun- eta bizikidetzatopaketan, jarduera fisikoa ardatz hartuta. ONCE Fundazioari dagokionez, Gorpildun Aulkiko Saskibaloiko Eskola du oinarritzko kirola sustatzeko bide; halaber, Fundazioak Gorpildun Aulkiko Saskibaloiko ONCE Fundazioa liga babesten du, baita gorpildun aulkiko saskibaloiko CD Ilunion taldea, munduko talderik onenetakoa, nazio-mailako zein nazioarteko lehiaketetan parte hartzen duena. Orobat, Helburu Paralinpikodun Kirola Laguntzeko Planaren (ADOP Plana) babesleeta bat da.



5

ELKARTASUNA, mundu hobe baterako

- 5.1 Nazioarteko bultzada
- 5.2 Etorkizunerako planeta
- 5.3 ESGko arduradunak
- 5.4 Ikerkuntza + Berrikuntza



Egin klik kapitulu bakoitzean





Kontzientzia, efizientzia, optimizazioa eta garapena funtsezkoak dira Garapen Iraunkorraren 2030 Agendarekin bat datorren eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak gidatzen duen eredu ekonomiko eta sozial honetan. Eta munduko txoko guzti-guztietatik eta gure arlo exekutibo guzti-guztietatik egiten dugu, hitz magiko bat erabiliz, elkartasuna: garena eta daukaguna partekatzea besteek hobera egin dezaten, eta horrek esan nahiko du denok batera eboluzionatuko dugula. ONCE Gizarte Taldea duela 30 urte baino gehiago hasi zen arduratzen munduko gainerako pertsona itsuen edo beste desgaitasun bat dutenen errealitateaz, eta beste komunitate batzuekin lankidetzan aritu, lagundu eta kooperatu nahi du desgaitasunarekin inklusiboagoa den gizarte bat eraikitzeko, Espainiako ereduaren lortutako ezagutzatik abiatuta. Europa eta Latinoamerika dira lan gehien egiten direneko tokiak, baina ez dira Espainia ONCEren herrialde gisa hartzen duten bakarrak.

5.1 Nazioarteko bultzada

2022an, ONCE Gizarte Taldeko hiru arlo exekutiboetatik lan egin da nazioarteko erakunde bileretan edo ekitaldietan parte hartuz, desgaitasuna duten pertsonak munduko leku guztietan kontuan har ditzaten.

- Laguntza teknikoa ematea Latinoamerikako eskualdean, EUROsociAL+ programaren bidez: Argentinan, Brasilen eta Uruguain, hezkuntzan eta enpleguan;
- Mediterraneoaren aldeko Batasunarekin batera, Desgaitasuna duten gazteen eta emakumeen

inklusiore buruzko Lehen Eskualde Konferentzia egitea eskualde horretan.

- Gure berdintasun-politikak erakustea Mediterraneoko Emakumearen Goi Mailako Konferentzian, bertako 42 herrialde kideetako agintariekin batera.
- Berdintasun-politikak bultzatzea, Amerikako Estatu Erakundearekin (OEA) lankidetzan, eskualde horretako herrialdeei Gomendio bat emateko, desgaitasuna duten emakumeen eta neskatuen aurkako genero-indarkeriaren arloan.

2022an, aliantza estrategikoen sarea ere handitu zen:

- Latinoamerikarako eta Kariberako Ekonomia Batzordearekin (CEPAL) egindako Lankidetzaren Hitzarmena jarri zen abian.
- Europako Eragin Sozialeko Komunitatearekin bat egin genuen, PHILEAren bidez, eta Latinoamerikan, Latimactoren bidez. Ganera, Latinoamerikarako Garapen Bankuarekin (CAF) lankidetzaren esparrua berriro zabaldu genuen.

ONCE Gizarte Taldeak (AECID eta FIAAPPekin batera) Espainiaren konpromiso bateratuetan parte hartu zuen Norvegiako Desgaitasunari buruzko Munduko Gailurrean, sektore sozialaren eta sektore publikoaren arteko lankidetzaren adibide gisa.

Insertaren nazioartekotzeko BID Lab-ekin egindako lankidetzaren esparruan, Washingtonen antolatu genuen, Bankuko agintari gorenak bertan zirela, erakunde multilateral horrek bultzatutako proiektuen lehen eskualde-topaketa. Eta Kolonbian aurkeztu genuen proiektua (Portalento LATAM izenekoa eskualde honetan), sektore pribatuko, gobernuko eta gizarte-erakundeetako bazkide nagusien aurrean eta Aholku Batzorde Globalaren babesarekin. Azken hori Lanaren Nazioarteko Erakundeak, Gizarte Segurantzako Iberoamerikako Erakundeak, CEPALek, RIADISek eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordeko lehendakariordeak osatzen dute.

Aurten, halaber, Desgaitasunaren Programa Iberoamerikarraren kide-kopurua handitzea lortu dugu. ONCE Gizarte Taldea Unitate Tekniko gisa aritzen da programa horretan, eta hamabi herrialde kide izatera iritsi da (10 latinoamerikar gehi Espainia eta Andorra). Halaber, Aholku Batzordea sortzen lagundu dugu; bertan desgaitasuna duten pertsonen eskualdeko erakundeak (RIADIS, ULAC eta RELAVIN), Nazio Batuen agentziek eta Iberoamerikako beste sare batzuek parte hartzen dute. Horrez gain, eskualde-proiektuak jarri genituen abian Gizarte Segurantzako Erakunde Iberoamerikarrarekin, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Estatu Iberoamerikarren Erakundearekin eta Iberoamerikako Justizia Ministerioen Konferentziarekin batera.

Diplomaziaren Akademiarekiko lankidetzaren esparruan, "Inklusiorako Diplomazia" gaiari buruzko hiru topaketa egin genituen Espainian akreditatutako kidego diplomatikoarekin, desgaitasuna duten pertsonen agendaren lehentasun estrategikoei eta ONCE Gizarte Taldearen gizartratze-ereduaren eraginari buruz. Horietako bi Frantziako eta Txekiar Errepublikako Europako Lehendakariak izatearekin batera, eta beste bat herrialde iberoamerikarretako Misioei zuzendu zen. Horietan, gizarte-ekonomia, enplegua, irisgarritasuna eta eraldaketa digitalak izan ziren gai gakoak.





70.000 pertsonaren alboan Latinoamerikan

Latinoameriako ONCE Fundazioa (FOAL) da ONCE Gizarte Taldeak Nazioarteko Lankidetzaren esparruan duen posizionamenduaren ikurra, itsuentzat edo ikusmen-desgaitasun larria duten pertsonentzat garapen sozial eta ekonomiko jasagarria lortzeko, planetaren alde horretan. 2022an, ekintza ugaritan hartu genuen parte:

- Bi patronatu egin ziren; bertan hitzarmenaren jarraipena egiteko bilerak egin ziren, bai ULACenak bai Latinoamerikako ICEVrenak.
- Bilerak egin ziren Costa Rica, Ekuador, Honduras, Txile, Bolivia, Nikaragua, Uruguai eta Peruko Hezkuntza eta Enplegu Ministerioekin, pertsona guztiak barne hartzeko moduko hezkuntza- eta enplegu-politikak ezartzeko.
- Desgaitasunari buruzko Gailur Globalean zehar, Side Event bat antolatu genuen, desgaitasunen bat duten pertsonen erakundeek politika publiko benetan inklusiboak diseinatzen eta ezartzen daukaten rola sustatzeko.
- Mahai-inguru batean parte hartu genuen Latinoamerikarako eskualdeko goi-bileran.
- Topaketa birtualak egin ziren 12 herrialdean ezarritako Agora programako profesionalekin.
- Praktika profesionalen proiektuak aurrera jarraitzen du, Mapfre Fundazioarekin lankidetzan, eta guztira 76 beka eman dira.

Ekimen berriei dagokienez:

- Desgaitasunari buruzko prestakuntza birtualeko plataforma bat abian jarri da, bai tokiko bazkideei bai gure aliatuei zuzendua.
- Hitzarmen bat sinatu da INTERREDeekin, Dominikar Errepublikan ikusmen-desgaitasuna duten

haurren hezkuntza-arretari buruzko diplomatu bat diseinatzeko eta gauzatzeko.

- IBERFOAL Programa abian jarri da, eta, zehazki, “Mugarik gabeko Hezkuntza” izeneko ekimena. Horri esker, itsutasuna edo ikusmen txikia zuten ikasleek ikasturte bat ere egin zezaketen gure herrialdean.

Horiekin batera, beste hauek ere nabarmentzekoak dira: alde batetik, Kolonbian WIKITIFLOS proiektua amaitu izana, zeina hasieran aurreikusitakoez gain, herrialdeko beste alde batzuetara ere zabaldu den; eta bestetik, beste 3 proiektu amaitu izana, Paraguai, Bolivia eta Dominikar Errepublikarekin batera finantzatuta.

Gizarte arloko Espainia Marka Europan

Europako Gaietarako Bulego Teknikoaren bidez (OTAE), harreman estua izan da EBko Batzordearekin, Europako Parlamentuarekin eta Kontseiluarekin, gobernuaren ekimen legegileek eta estrategiek desgaitasunaren ikuspegia kontuan har dezaten lortzeko; eta, horrez gain, lana areagotu egin da Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Estrategia Europarra 2021-2030 garatzeko. Estrategia hainbat arlotatik jorratu da, hala nola generoa, gizarte-ekonomia eta enplegua.

ONCE Gizarte Taldearen ordezkari bat Helena Dalli Europako Berdintasun Komisarioarekin bildu zen Europako Batasuneko Espainiaren presidentziak desgaitasuna duten pertsonak nabarmendu ditzan eta aukera-berdintasuna sortuko duen Europa sozialago bat eraiki dadin.

Halaber, oso nabaria izan zen Roberta Metsola Europako Parlamentuaren presidentarekin izandako topaketa Parlamentuaren eta ONCE Gizarte Taldearen



arteko hitzarmena berritzeko, desgaitasuna duten 85 milioi europarren premiak defendatzeko.

“Europa se acerca a ti /Europa zugana hurbiltzen ari da” proiektua amaitu zen Europako erakunde eta organizazioetako kideen eta ONCE Gizarte Taldeko Europako gaietako arduradun nagusien arteko harreman- eta topaketa-sare bat lortuta, bai estatuan, bai lurraldean.

Aurtengo beste mugarri bat izan zen 2022ko Europako Herritarra Sariaren epaimahaikide izatea.

Espainia PARVIS proiektuaren parte izan zen, Europako zortzi herrialderekin batera, non Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentziotik (CDPD) eratorritako 10 eskubidetan oinarritutako jarduerak garatu ziren. Proiektu horren helburua izan zen, ikus-entzunezko materialen bidez, itsuek edo ikusmen-desgaitasuna dutenek eguneroko bizitzan bizi dituzten egoerak ikusaraztea, eta nola lagun dezakegun guztion

artean gizarte inklusiboago eta integratzaileago bat sortzen.

Era berean, nabarmentzekoa da desgaitasuna duten gazteen talde baten parte-hartze arrakastatsua Santanderren egin zen Gazte Topaketa Europarrear; bertan, jarduera propio bat antolatzeko aukera izan zuten, ERASMUS+ programaren garrantziaz eta Europar Batasunean ikasketa-esperientzia osoa izatea mugatzen duten oztopoez eztabaidatzeko.

Gizarte arloko Espainia Marka European

- ITSUEN MUNDUKO ELKARTEA (UMC)
- EUROPAKO ITSUEN ELKARTEA (EBU)
- LATINOAMERIKAKO ITSUEN ELKARTEA (ULAC)
- GOR-ITSUEN NAZIOARTEKO ELKARTEA (DBI)
- DESGAITASUNAREN NAZIOARTEKO ITUNA (IDA)
- DESGAITASUNAREN ALDEKO EKINTZEN MUNDUKO SAREA (GLAD)
- BRAILLEAREN MUNDUKO KONTSEILUA (CMB)
- BRAILLEAREN IBEROAMERIKAKO KONTSEILUA (CIB)
- LIBURUTEGIEN ELKARTEEN NAZIOARTEKO FEDERAZIOA (IFLA)
- DAISY PARTZUERGOA
- NORMALIZAZIORAKO EUROPAKO BATZORDEA (CEN)
- MUSEOEN NAZIOARTEKO KONTSEILUA (ICOM)
- ITSUEN KIROLEKO NAZIOARTEKO FEDERAZIOA (IBSA)
- GIDA-TXAKURREN ESKOLEN NAZIOARTEKO FEDERAZIOA (IGDF)
- EUROPAKO HAZKUNTZA-SAREA (EBN)
- GIDA-TXAKURREN EUROPAKO FEDERAZIOA (EGDF)
- ITSUEN ETA IKUSMEN URRIKO PERTSONEN

HEZKUNTZARAKO NAZIOARTEKO KONTSEILUA (ICEVI)

- ICEVI EUROPA
- ICEVI LATINOAMERIKA
- LOTERIEN MUNDUKO ELKARTEA (WLA)
- LOTERIEN EUROPAKO ELKARTEA (EL)
- ESTATUEN LOTERIEN ETA APUSTUEN IBEROAMERIKAKO KORPORAZIOA (CIBELAE)
- EUROJACKPOT KOLABORAZIOA
- GIZARTE SEGURANTZAKO IBEROAMERIKAKO ERAKUNDEA (OISS)
- OJOS DEL MUNDO/MUNDUKO BEGIAK FUNDAZIOA
- HELPAGEN INTERNATIONAL ESPAINIA
- EUROPEAN NETWORK OF PHYSIOTHERAPY IN HIGHER EDUCATION (ENPHE)

Horrez gain, honakoetan ere hartu da parte:

- LATINOAMERIKA, 19 HERRIALDETAN JARDUTEN DUEN FOAL BITARTEZ: ARGENTINA, BRASIL, BOLIVIA, TXILE, KOLONBIA, COSTA RICA, KUBA, EKUADOR, SALVADOR, GUATEMALA, HONDURAS, MEXIKO, NIKARAGUA, PANAMA, PARAGUAI, PERU, DOMINIKAR ERREPUBLIKA, URUGUAI ETA VENEZUELA.
- PORTUGALGO ITSUEN ETA ANBLIOPEEN ELKARTEA (PORTUGALEN, MOZAMBIKEN, CABO VERDEN, SAO TOME ETA PRINCIPEN ETA GINEA BISSÁUN JARDUTEN DUENA)
- ZENBAIT HEZKUNTZA-PROIEKTU BALKANETAN (BULGARIA, ERRUMANIA, ALBANIA ETA BOSNIA), MAROKON, EGIPTON ETA ARGELIAKO SAHARAKO ERREFUXIATUEN KANPAMENDUETAN
- LANKIDETZA EKUADORREKO GINEAKO ITSUEN NAZIO ERAKUNDEAREKIN (ONCIGE)
- DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN EUROPAKO FOROA (EDF)

- DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ERREHABILITAZIORAKO ETA LANBIDE PRESTAKUNTZARAKO EUROPAKO PLATAFORMA (EPR)
- DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN HORNITZAILEEN EUROPAKO ELKARTEA
- SPAIN NAB
- WEBGUNEAN IRISGARRITASUNA ESTANDARIZATZEKO MUNDUKO PARTZUERGOA (W3C)
- GUZTIONTZAKO DISEINURAKO EUROPAKO ERAKUNDEA (EIDD)
- TURISMO IRISGARRIRAKO EUROPAKO SAREA (ENAT)
- NAZIOARTEKO BATZORDE PARALINPIKOA
- EUROPAR BATASUNEN BATZORDE EKONOMIKO ETA SOZIALA (CESE)
- ENPRESA PUBLIKOEN ETA ZERBITZU PUBLIKOEN EUROPAKO ZENTROA (CEEP)
- FUNDAZIOEN ZENTRO EUROPARRA (EFC)
- EKONOMIA SOZIALEKO EUROPAKO PLATAFORMA (SEE)
- COUNCIL OF FOUNDATIONS
- TURISMOKO MUNDU ERAKUNDEKO KIDE AFILIATUEN PROGRAMA (OMT)
- NAZIOARTEKO ENPRESA-PRESENTZIA PORTUGALEN ETA KOLONBIA



5.2 Etorkizunerako planeta

Hain zabala den gizarte-talde bat ezin da geratu planetaren gainean egon daitezkeen inpaktuak minimizatzen at, eta eredu garri izaten saiatzen da erakusteko ia bonbilaz bonbila, litro urez litro ur, orriz orri, edozein ekimenek bere aletxoak jartzen duela etorkizun hobe baten alde.

2022an, ONCEk Ingurumen Iraunkortasunerako Plan bat zehaztu du deskarbonizazioaren, ekonomia zirkularren eta ingurumen-kudeaketaren ezarpenaren helburuak betetzeko aukera emango duten etorkizuneko jardueren garapenean gidatzeko.

ONCE bete-betean dago murgilduta bere zentroetan ingurumen-kudeaketako prozesua ezartzen, ISO 14.001 arauari jarraituz, eta 2023an ziurtagiria lortzea aurreikusita dago Madrileko Joko Produktuen Ekoizpen eta Logistika Zentroan (CLP) eta Hezkuntza Baliabideen Zentroan (CRE).

2022an, ingurumen-arloko zabalpen- eta sentsibilizazio-jardueri jarraipena eman zaie. Hona hemen batzuk:

- Langileak kontzientziatzea eta haien artean intraneten erabilera sustatzea, paperean egindako izapideak ahalik eta gutxien izateko eta informazio-agiri fisikoak ekiditeko.
- Ingurumen-iraunkortasunari buruzko prestakuntza-saioak ONCE Campus Birtualaren bidez, saltzaileak ez diren langile guztientzat.
- Ekainaren 3an ekitaldi bat egitea, aurrez aurre eta modu birtualean, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatzeko: debatea, jardunbide egokiak, ekintzak, ideiak...

ONCEn ingurumen-inpaktu handiena sor

dezaketen jarduerak hauexek dira: alde batetik, Ekoizpen eta Logistika Zentrotik (CLP) eratorritakoak, bertan, besteak beste, kupoiaren eta loteriako beste produktu batzuen inpresioa eta banaketa egiten baita; eta, bestetik, eraikuntzen klimatizazioa. CLPn nabarmen murriztu da ur, paper eta plastikoaren kontsumoa, ekonomia zirkularra bultzatzeko; eta energia-kontsumoari dagokionez, klimatizazio-ekipoak aldatu dira, LED argiak jarri dira eta arotzeria hobetu da. Halaber, Erantzukizun Zibileko aseguru bat ere gehitu da, kutsadurak eragindako kalte-galerengatik.

Bestalde, Erakundeak hainbat kanal ditu langileek, afiliatuek edo bezeroek ingurumen arloko keak eta iradokizunak helarazteko. 2022an ez da jaso ingurumen-arrazoiengatik aurkeztutako erreklamaziorik, ezta isunik ez zehapen esanguratsurik ere arlo horretako legeak edo arauak urratzeagatik.

Efizientzia energetikoa hobetzeari dagokionez, 2022an hainbat ekimen sustatu dira ONCEko zentroetan, hona hemen horietako batzuk:

- Klimatizazio-ekipoak berritzea eta, ahal izanez gero, aerotermia kontuan hartzea, energiaren % 40-50 aurrezteko.
- Plaka fotovoltaikoak jartzea.
- Luminariak ordeztzea, argiztapenaren efizientzia ahalbidetzeko.
- Iraunkortasunari buruzko 14/2022 Errege Lege Dekretu ezartzea, tenperatura mugatzeari eta argiak amatatzeari dagozkien ekintzak nabarmenduz: presentzia-detekttagailuak instalatzea, klimatizazio-denborak doitztea, eta abar.

- CLPn UV tinta lehertzeko sistema konbentzionalen ordez UV led argia duten sistemak jartzea, ohiko lehorketa baino kontsumo elektriko txikiagoa baitute.
- Energia elektrikoaren kontsumoa neurtzen duten adierazleak optimizatzen jarraitzea: energiaren prezioa, kontratatutako/eskatutako potentzia kontrolatzea, erreaktibitateagatik zigorren azterketa, kontsumo-patroia, eta abar.

Efizientzia energetikoari dagokionez, eta lege- eskakizunei jarraituz, ONCEk lau urtean behin egiten du ezarritako energia-auditoretza.

Isurketak murrizteari dagokionez, Ingurumen Iraunkortasunerako Planak berotegi-efektuko gasen isurketa murrizteko ekimenak sustatu ditu, baita edozein motatako atmosfera-kutsadura, zarata-igorpenak eta argi-kutsadura barne, murrizteko ere:

- Ozonoa agortzeko ahalmen handia duten klimatizazioko gas fluorokarbonatuek (PAO) eragindako kutsadura murrizteko neurriak:
 - Makina zaharretan, R22 hozgarriaren ordez (PAO = 0,5) R410A, R134, R410 eta R407 erabiltzea pixkanaka (guztiak PAO = 0). Ordezkatutako makinaren %100ek ozonogerruz errespetatzen dute eta prebentziozko berrikuspenei ihesak saihesten dituzte
- Mugikortasun Plana:
 - Mugikortasun Mahaia abian jartzea, hainbat eremurekin, langileen mugikortasuna hobetzeko, inklusioa zein isurpenen emisioen murrizketa sustatuz eta iraunkorrak izatea eta konektatuta eta seguru egotea ahalbidetuz.
- Zaratak eragindako kutsadura murrizteko neurriak:

- Intsonorizazio-sistemak aire girotuko makina guztietan, panel isolatzaileak eraikinen estalkietan, eta 2022an ordezkatutako makinaren % 100ek soinu-maila baxuko sistemak dituzte.
- Argiak eragindako kutsadura murrizteko neurriak:
 - Pixkanaka-pixkanaka egoera solidoko teknologiadun LED bidez ordeztzea
 - 19 baino gutxiagoko itsutasun-indize edo UGR (Unified Glare Rating) duten luminariak instalatzea, fabrikatzaileek ziurtatua.
 - 550 lux-eko argiztapen-mailara mugatzea lanpostuetako argiztapena, \pm % 10eko tolerantziarekin, behar besteko argitasuna bermatu eta gehiegizko argiztapena ekiditen baitu; eta zentroetan pantailadun farolak diseinatzea, kanpoko argiztapen-sistemekin eta dekorazio-langekin, beharrezko argia igortzeko, eta ez horizontearen gainetik
 - 4000°C-ko edo hortik beherako koloreko tenperaturak dituzten lanparen uhin-luzerak hautatzea, igorritako argi-erradiazioa uhin laburrekoa izan dadin.





Horrez gain, ONCEk apustu argia egin du ekonomia zirkularren alde, garapen iraunkorrerako funtsezko elementu gisa. Datozen urteetan zentroetan hondakinak kudeatzeko sistema integrala ezartzen jarraitzeko helburua dago, behar bezala bereiziz.

Zenbait zentrotan zuzeneko ingurumen-alderdiak ebaluatu ostean, CLPn inpaktu garrantzitsuak antzeman dira papera eta kartoia ekoiztearekin eta polietilenoarekin lotuta. Konpontzeko, ekoizpen-katean polietileno birjina ordeztzeko neurriak hartu dira, eta horrela, hondakinei eta lur kutsatuei buruzko Legearekin eta ontziei buruzko 1055/2022 Errege Dekretuarekin bat etorrira, horren erabilera eta horri lotutako hondakinen sorrera murrizteko.

Horren harira, ONCEekin lan egiten duten hondakin-kudeatzaile guztiek baimena dute aritzen diren Autonomia Erkidego bakoitzean.

Pasabideetan eta atsedenlekuetan, "garbiguneak" ezarri dira, hainbat zentrotan hiri-hondakinekin pareka daitezkeen merkataritza-hondakinak bereizteko. Gainera, hondakin arriskutsuen biltegiak sortu dira, mantentze- eta garbiketajardueretatik datozenak biltzeko.

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea dela-eta, zenbait zentrotan "Arropa eta osagarriak saltzeko ekonomia zirkularreko azoka txikiak" egin dira. 650 jantzi baino gehiago jarri dira salgai, % 25 berrerabili da, hau da, ia 4 milioi litro ur aurreztu dira.

Hondakin arriskutsuak tipologiaren arabera sailkatzen dira baimendutako kudeatzaileek egiten dituzten erretiratze- eta birziklatze-prozesuak errazteko. Aldian-aldean ikuskatzen dute prozesu hori agintari eskudunek.

Hondakinen helmugari buruzko datuak hondakinen kudeatzaileen ziurtagirietatik biltzen dira. Papera eta kartoia biltzeko udal-

edukiontzietan eta ontziak biltzeko udal-edukiontzietan utzitako hondakinen kasuan, birziklatzeko erabiltzen dira.

Uraren erabilera iraunkorrari dagokionez, ONCEk ura ateratzen du hornidura-saretik, bai bulegoekin pareka daitezkeen zentroetan, bai industria-guneetan, hala nola CLPn. Isurketa udalen saneamendu-sarera egiten da bulego-zentro guztietan, auzo-erkidego batean sortutakoekin pareka daitezkeelako, eta, CLPren kasuan, ez da inolako isurketarik egiten, bustitze-urak zein garbiketura-urak bidoietan uzten dira eta baimendutako hondakin-kudeatzaile batekin tratatzen dira.

Ur-kontsumoa murrizten laguntzeko eta uraren erabilerearen eraginkortasuna hobetzeko neurrien artean honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Zisternetako ur-bolumena murriztea eta fluxometroak jartzea, txorrota zaharra ordeztan.
- CLPn ur-kontsumoa egunero kontrolatzeko prozesu bat ezartzea, zentroko hornidura-sareko matxurak antzeman ahal izateko.

Bestalde, ONCEk, Europako eta Espainiako kontu-ikuskaritzako araudiaren ondorioetarako interes publikoko erakundea den aldetik, informazio ez-finantzarioaren dibulgazioari buruzko zuzentarauaren mende dago, eta informazioa zabaldu behar du bere jarduerak ingurumenaren aldetik jasangarritzat jotzen diren jarduera ekonomikoekin lotzen diren moduari eta neurriari buruz, bai eta hori bermatzen duten negozio-bolumenari, kapital-gastuei (ibilgetuan egindako inbertsioa) eta operazio-gastuei lotutako adierazleei buruz ere.

Gutxieneko gizarte-zaintzekin bat etortzeko betekizunari dagokionez, adierazi behar da ONCEk Taxonomiaren Erregelamenduaren 3. eta 18. artikuluetan ezarritakoa betetzen duela

(ELGak Enpresa Multinazionalentzako eta Nazio Batuen Printzipio Gidarietarako Jarraibide Ildoak, enpresei eta giza eskubideei buruzkoak, Lanaren Nazioarteko Erakundearen Adierazpenean eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean aipatzen diren zortzi oinarrizko hitzarmenetan ezarritako printzipioak eta eskubideak barne), eta Nazio

Batuen Mundu Itunari atxikita dagoela.

Gainera, Erakundeak gai hauen gaineko politikak eta prozedurak ditu: ustelkeria; erantzukizun fiskal eta etikoa; eta hornitzaileekin behar bezalako arreta izateko prozedurak. Ildo horretan, azpimarratu behar da ONCEk ez duela zigorrik edo zehapenik jaso giza eskubideen urraketagatik.





Enpresa sozial eta iraunkorrak

Ilunionen Iraunkortasunari buruzko Plan Zuzentzaileak “Ingurumen Konpromisoa” izeneko proiektua jasotzen du, eta hor biltzen dira Ilunionez, enpresa-talde gisa, dituen ingurumen-helburuen irismena zehazteko hainbat neurri. Hona hemen berotegi-efektuko gasen isurketa murrizteko helburuz gauzatu diren ekintza-lerro nagusiak:

- *Ilunion Hotels, Ilunion Reciclados, eta Ilunion Servicios Industriales* enpresek luminariak ordeztu dituzte LED teknologiarekin
- *Ilunion Hotelsek* hamar hoteletan egin du munta handiko energia-auditoretza bat. Hozteko makinak, hotz-kamerak, galdarak eta energia kontsumitzen duten beste zenbait ekipo hobetu edo ordeztu ditu eraginkorragoak diren beste ekipo batzuk jarritz. Halaber, Ilunion Atriumen klimatizazio-sistema hobetu du eta berogailu-sistema aerotermiarekin ordeztu du.
- *Ilunion Ibéricos de Azuaga* enpresak galdarraztatze-sistema aldatu du bero-galerak murrizteko.
- *Ilunion Lavanderíasek* energia-efizientziarako plan bat egin du, 2023an ezarriko dena eta hiru arlotan egituratzen dena: makineria, instalazioak eta prozesua. Gainera, zenbait zentrotan energia-iturri autonomoa erabiltzen duten kalandrak, arropa-tunelak eta lehorgailuak jarri dira, kontsumo termikoa nabarmen murrizteko.
- *Ilunion Hotelsek eta Ilunion Lavanderíasek* prozesu operatiboak eta mantentze-lanak kontrolatzeko sistema bat dute.
- Energia-kontsumoan eragin nabarmena izan dezaketen produktuak edo ekipoak erosteko energia-efizientziako baldintzak ezartzea.
- *Ilunion Retail y Comercialización* enpresak

R-290 gas hozgarria duten hozteko aparatuek eta saltzeko makinak soilik erosten ditu, ingurumen-inpaktu txikia baititute. Erabili ondoren hozte-ekipoen atak ixteko kontrola ezarrita dute bi eremuetako langileek

Mugikortasun iraunkorra sustatzea

- *Ilunion Hotelsek* 8 hoteletan ibilgailu elektrikoetarako errenergaguneak jarri ditu, bezeroek doan erabil ditzaten.
- *Ilunion Facility Services eta Ilunion Lavanderías* enpresek ibilgailuak eraginkortasunez gidatzeko jarraibideak dituzte
- 2022. ekitaldian *Ilunion Lavanderíasek* hainbat prestakuntza-saio eman die 750 gidariri baino gehiagori gidatze eraginkorrari eta jardunbide egokiei buruz.
- *Ilunion Lavanderíasek zein Logiraees, S.Lek* flota kudeatzeko sistema bat dute. Halaber, aipatzekoa da gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak (GEEH) garraiatzen aritzen diren azken bi enpresa horietan egindako kilometroen %40 baino gehiago ibilgailu iraunkorrak erabiliz egin zirela eta horrela 46,21 tona CO2 isurtzea saihestu zen.

Langileak egunero lantokietara garraiatzeari dagokionez, lan-malgutasuneko eta telelaneko neurriek eta on-line prestakuntzaren eta bideokonferentzien sustapenak eragin positiboa dute emisioen murrizketan.



Energia berriztagarrien sustapena

- Jatorri berriztagarriko elektrizitate ziurtatua erostea. *Ilunion Hotelsen* eta *Ilunion Dorrea* eta Mizar eraikinetan energia guztia energia eolikotik, eguzki-energiatik edo hidraulikotik dator. Guztira, 2022an, Ilunionen kontsumitutako energiaren % 6,9.

- Eguzki-produkzio fotovoltaikoa

Ilunion Lavanderiasek Sabai Berdeak 2020-2023 proiektua dauka, eguzki-energia fotovoltaikoaren % 15 sortzeko, urtean 1 GWh-ko produkzioarekin. 2022. urtearen amaieran, 16 zentrok eguzki-sabaiak zeuzkaten, 2021ean baino 11 gehiago. 3.568 kW-eko potentzia instalatuak 2.435,56 MWh sortu zituen autokontsumorako, hau da, 2021ean baino 2,4 aldiz gehiago, eta 643,54 t CO2 eq isurtzea saihestu du. Era berean, instalazio horien energia-aurrezpenak oso esanguratsuak izan dira aurreko urtearekin alderatuta, tratatutako arropa kg bakoitzeko energiaren % 15 aurreztera iritsi baita.

Era berean, 2022an, Taldeko zenbait enpresak eguzki-panel fotovoltaikoak instalatu dituzte: *Ilunion Retail*, *Ilunion Ibéricos de Azuaga*, *Ilunion Reciclados*, *Ilunion Contact Center*, eta *Ilunion Hotels*.

- Bestalde, *Ilunion Reciclados*, *Ilunion Automoción*, *Ilunion Hotels* (Hotelak: Atrium, Auditori, Barcelona, Calas de Conil, Costa Sal, Islantilla eta Malaga) eta *Ilunion Sociosanitario* (Residencia Prado de San Gregorio) enpresek eguzki-panel termikoak erabiltzen dituzte ur bero sanitarioa ekoizteko.
- Biomasa galdara *Ilunion Alcora* hotelean eta *Ilunion Ibéricos de Azuaga* enpresan.
- *Ilunion San Mames* eta *Ilunion Costa Sal* hoteletan etxeko ur beroa ekoizteko aerotermia-sistema.

Bestalde, Ilunionek “Ilunion Basoa” izeneko ekimena jarri du abian CO2 isuriak konpentsatzeko, eta *Ilunion Hotelsek* 500 zuhaitz dituzten bi baso sortzea bultzatu du. Gainera, *Ilunion IT Services* enpresak, lankidetzaren bidez, 72,5 tona CO2 konpentsatu ditu.

ONCE Fundazioari dagokionez, bere jardueraren izaeragatik inpaktua bereziki esanguratsua ez bada ere, ingurumen-iraunkortasunaren arloko jarduerari-ildo jakin batzuei heldzen die, 2030 Agendarekin eta GIHeekin bat etorritik, bai eta eremu exekutiboko Iraunkortasun Politikarekin eta 2019-2022 aldirako Iraunkortasunaren Plan Zuzentzailearekin ere.

ONCE Fundazioaren asmoarekin bat etorrita, ingurumen-iraunkortasunaren arloan honako ekintza-ildo hauek nabarmentzen dira:

- Iraunkortasunarekin lotutako sektore eta

jardueretan, desgaitasuna duten pertsonentzako enplegua sortzeko konpromisoak.

- Aliantzak indartzea, hala nola *Fundación por el Clima*/ Klimaren aldeko Fundazioa ekimena, *Jobs 2030*, *Futuro del trabajo de Forética*/ Foreticaren lanaren etorkizuna edo *Alianza para la Transición Energética Inclusiva*/ Trantsizio Energetiko Inklusiborako Aliantza.
- UNE-EN-ISO 14001:2015 arauaren arabera Ingurumena Kudeatzeko ziurtapenaren esparruan, 2022an egindako kanpo-auditoretzak (AENOR) modu egokian ebatzi dira, bai ONCE Fundazioari bai Servimediari dagokienez, eta lehenengo aldiz *Inserta Empleon*.
- Ziurtatutako sistemen esparruan, ONCE Fundazioak eta Servimediak zuhurtziazko printzipioa hartu dute ingurumen-kudeaketan.



- ONCE Fundazioaren, *Inserta Empleoren* eta Servimediaren Erantzukizun Zibileko aseguru-polizek istripu-kutsaduragatik erantzukizun zibila jasotzen dute, eta, zehazki, *Inserta Empleorako* aseguruak ingurumen-erantzukizuna ere jasota dauka.
- 2022an, lanean jarraitu da barne-sentsibilizazioan - arlo horretan nabarmentzekoa da ONCE Fundazioaren Arlo Exekutiboaren *Green Makers* proiektua- eta ingurumen-iraunkortasuna erakundearen kulturean txertatzean.

Kutsadurari dagokionez, kutsadura prebenitzeko eta murrizteko ezarri diren neurrien artean, honako hauek nabarmentzen dira: hondakinen kudeaketa egokia, ekipamenduen eta instalazioen eraginkortasunari dagokionez etengabeko hobekuntza, eta langileak energia-eraginkortasunaren eta hondakinen prebentzioaren eta bereizketaren arloan sentsibilizatzea. Mugikortasun iraunkorragoa bultzatzeko neurriek ere eragina dute kutsaduraren murrizketan, bai eta energia-kontsumoaren optimizazioan eta klima-aldaketaren aurkako borrokan ere.

2022aren hasieran, ONCE Fundazioaren arlo exekutiboaren Deskarbonizazio Plana onartu zen, horren asmoa izanda 2029rako karbono-aztarna ia erabat murriztea.

- Ibilgailu-flota progresiboki aukera iraunkorragoekin ordezkatzea
- Karbono-isuriaren eta -negatibotasunaren konpentsazioa, deskarbonizazio-plan baten bidez, Pontevedran (Galizia) hondatutako lurzorua eta/edo erretako lurrak basoberritzeko eta berreskuratzeko proiektuetatik eratorritako karbono-kredituak eskuratzea bezalako konpentsazioekin.



5.3 ESGko arduradunak

Historian zehar, ONCE herritarrekiko, oro har, erantzukizun sozialeko erakunde gisa sortu zen, pertsona itsuen edota beste desgaitasunen bat zutenen autonomia pertsonala eta erabateko inklusioa sustatzeaz arduratzen baitzen. Orain, **ONCE Gizarte Taldeak sugar horri eusten dio eta ESGren (Environmental, Social eta Governance) dimentsio berriak zehaztuta dauden konpromisoetarantz bilakatzen da:** ingurumen, gizarte eta gobernu korporatiboaren faktoreak lehenestea, ekin beharreko ekintzak baloratzea. ONCEk Gizarte Erantzukizun Korporatiboari buruzko Plan Zuzentzaile bat dauka, eta horrek

ONCEk jarraitu beharreko ildo estrategikoak zehazten ditu, erantzukizun sozialarekin lotutako ekimenak eta etika-, ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-arloan garrantzitsutzat jo diren eta interes-taldeen erabakietan funtsezko eragina izan dezaketen gaiak zeharka kudeatzeko. Plan horrek bat egiten du 2030 Agendaren GIHei garapen iraunkorra lortzen laguntzeko egiten duten ahalegin kolektiboarekin.

Planteamendu hori honako 6 ildo estrategikoetan oinarritzen da:

- Gure gizarte-zerbitzuen kalitatea eta berrikuntza.
- Loteria sozial eta arduratsua
- Gure pertsona-taldea
- Gobernu ona, iraunkortasuna eta etika

- Komunikazioa eta ospearen neurketa
 - Ingurumenarekiko konpromisoa
- ONCE Fundazioak, Inserta Empleo eta Inerta Innovación Elkarteek eta Servimediak garapen iraunkorrarekiko konpromiso aktiboa dute, beren gizarte-misioa betetz, jarduera 2030 Agendarekin eta haren Garapen Iraunkorrarekiko Helburuekin (GIH) bat datorrela argi eta garbi erakusten duen bezala. Programa eta ekintza ugariarekin, lehenetsuz laguntzen zaie honako GIHei: 4.a (Kalitatezko hezkuntza), 8.a (Lan duina eta hazkunde ekonomikoa), 10.a (Desberdintasunak murriztea), 11.a (Hiri eta komunitate iraunkorrak) eta 17.a (Helburuak lortzeko aliantzak). Helburu horietan guztietan, 2030 Agendak berak berariaz eta espezifikoiki aitortzen ditu desgaitasuna duten pertsonak. Gainera, 53. GIHri egindako ekarpena ere nabarmendu daiteke (Genero-berdintasuna). Horrela, gizarte-erakunde gisa duen izaeratik abiatuta, eta GIHak betetzen modu esanguratsuan laguntzeko konpromisoa hartuta, ONCE Fundazioak iraunkortasuna integratzen du bere misioa eta kudeaketa bikaina sendotzeko eta interes-taldeei balioa sortzeko gaitasuna maximizatzekeko elementu gisa.

2022an, ONCE Fundazioak 2019-2022 Iraunkortasunaren Plan Zuzentzailea amaitu zuen, ESG ikuspegiarekin, aurreikusitako jardueren % 100 gauzatuta. Era berean, ONCE Fundazioak lan garrantzitsua egiten du desgaitasunaren dimentsioa sendotzeko hirugarrenen ESG agendetan, Europara begira bereziki, Bruselatik datorren erregulazioaren garrantzia kontuan hartuta. Horrela, ospatu dezakegu 2022an desgaitasuna berariaz sartu zela Iraunkortasunari buruzko Informazio Korporatiboari buruzko Europako Zuzentarau berrian, EBko 27 herrialdeei eragiten dienean. Era berean, Fundazioak aliantzak ditu ESG plataforma garrantzitsuekin,

besteak beste, Inbertsio Iraunkorrerako Espainiako Foroarekin (Spainsif) edo Global Reporting Initiative (GRI) informazio-arloko erreferentziazko mundu-erakundearekin, eta ekimen espezifikoak garatzen ditu Desgaitasuna eta Iraunkortasuna binomioa sustatzeko, Europako Gizarte Funtsak kofinantzatutako Disability Hub Europe bezalako proiektuekin.

Ilunionez 2022an amaitu zuen bere Plan Zuzentzailea, eta nabarmentzekoa da Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Batzordea sortu zuela 2018ko martxoan eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Bulego Teknikoa ere bai. Plan Zuzentzaile horrek Garapen Iraunkorraren Helburuak (GIH) lortzen lagundu du: 5. GIH (Genero Berdintasuna), 8. GIH (Lan duina eta hazkunde ekonomikoa), 10. GIH (Desberdintasunak murriztea), 11. GIH (Hiri eta komunitate iraunkorrak), 12. GIH (Ekoizpen eta kontsumo arduratsua), 13. GIH (Klimaren aldeko Ekintza), 16. GIH (Bakea, justizia eta erakunde sendoak) eta 17. GIH (Helburuak lortzeko aliantzak).

Konpainiak Iraunkortasunaren Plan Zuzentzaile berria dieinatu du, 2023 - 2027 epealdirako, eta Ingurumen Konpromisoa, Gizarte Konpromisoa, Gobernu Ona eta Aliantzak ardatzetan oinarritu du. Etika da protagonista ardatz horietan guztietan, dimentsio guztietan.

ONCE Gizarte Taldea 2023an Espainian ospe korporatibo onena zuten hiru enpresa/erakundeetako bat izan zen Merco Empresas 2022 Espainiako rankingaren arabera. Horrez gain, lehenengo postuetan dago Merco Responsabilidad ESG 2022 Espainiako rankingean (konpainien gizarte- eta ingurumen-iraunkortasuna, etika eta gobernu ona neurtzen ditu).

**Zeharkako desgaitasuna**

Eta hori guztia bidaide askoren eskutik helduta egiten dugu; haiek laguntzen digute etorkizunerako edozein ekintza sustatzen, jarduera-ardatz gisa desgaitasunari zeharka eutsita, Espainia barruan zein Espainiatik kanpo. Munduari erakusten zaio ONCE Gizarte Taldearen eredia, honakoetatik batzen jarraitzeko:

Estatu maila.

- Desgaitasundun Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordea (CERMI).
- Justizia eta Desgaitasuna Foroa
- Desgaitasunaren Errege Patronatua
- Fundazioen Espainiako Elkarte (AEF) eta Fundazioen Análisi Estrategikorako Institutua (INAEF).
- National Advisory Board for Impact Investment (Spain NAB).
- Ekonomia Sozialerako Espainiako Enpresa Konfederazioaren (CEPES).
- Spainsif (Espainian inbertsio iraunkor eta arduratsua gauzatzeko plataforma)
- Forética.

Europa maila:

- Fundazioen Zentro Europarra (EFC).
- European Disability Forum (EDF).
- Enpresa eta Zerbitzu Publikoko Zentro Europarra (CEEP).
- Desgaitasundun Pertsonen Errehabilitazio eta Lanbide Prestakuntzarako Plataforma Europarra – European Platform for Rehabilitation (EPR).
- Desgaitasundun Pertsonentzako Zerbitzu Hornitzaileen Elkarte Europarra (EASPD).
- Guztiontzako Diseinurako Institutu Europarra (EIDD – Design For All Europe).
- Turismo Irisgarrirako Sare Europarra (ENAT).

- The European Venture Philanthropy Association (EVPA).
- Europa Batasuneko Batzorde Ekonomiko eta Soziala (CESE) (Ekonomia Sozialerako Espainiako Enpresa Konfederazioaren ordezkari gisa (CEPES)).
- Ekonomia Sozialaren Plataforma Europarra – Social Economy Europe (SEE) (Antzinako CEP-CMAF) (EFCren ordezkari gisa).
- Desgaitasunaren aldeko Sare Globala (GLAD) (ONCE Gizarte Talde gisa)

Europaz gaindikoa:

- Council On Foundations (COF).
- Webguneko Irisgarritasunaren Estandarizaziorako Partzuergoa - World Wide Web Consortium (W3C).
- Turismoaren Mundu Erakundeko Kide Afiliatuak Programa (OMT).
- International Standard Organization (ISO).
- Global Reporting Initiative (GRI).
- Nazio Batuen Kontseilu Ekonomiko eta Soziala (ECOSOC).





5.4 Ikerkuntza + Berrikuntza

Ikertu eta berritzeko beharra da etorkizuna irabazi nahi duten erakundeek bultzatu eta praktikatutako behar duten maximoa. Berrikuntza teknologikoak, guretzat beti osagai sozial bat daukanak, munduan zer gertatzen den adi egotera bideratzen gaitu, gure errealitateara ondoen egokitzen diren ekimenen bila. Baina ez hortik bakarrik, baita gure arlo guztietatik berrikuntzara garamatzen ikerkuntza biziki sustatzen dugu, eta, beti-beti, ezinbestean inklusioa den alderdi bat kontuan hartuta.

ONCEk ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-tifloteknikoko eta ikusmen-ikerketako lan-ildoak mantentzen ditu, afiliatuari ematen dizkien zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko eta haien beharrei eraginkortasunez erantzuten jarraitzeko, haien errealitate soziala ezagutzen eta esku hartzeko teknika berriak eta teknologia espezifikoak garatzen aurrera egiten duen bitartean.

Gainera, arretaren kalitatea eta zerbitzuen prestazioa hobetzen dituzten ikerketa-ekimenak babesten ditu, bilakaera eta aldaketa sozial eta teknologikoetara egokitzeko.

Tifloteknologia eta Berrikuntza Zentroa (CTI) ONCEren erreferentziako zentroa da Espainian eta munduan, irisgarritasunari eta itsuentzako edo ikusmen-urritasun larria duten pertsonentzako laguntza-produktuei dagokienez.

2022an, 152 proiektu garatu dira guztira:

- 143 proiektu tifloteknologiarekin eta laguntza-produktuekin lotuta; horietako batzuk azken

produktu bilakatuta; Braitico (alfabetatzeko, irakurtzeko eta idazteko metodoa), ordenagailurako GOLD Liburu Digitalen Kudeatzailea, eta "apalabrados/hitzartuak" joko famatuaren egokitzapena.

- 6 proiektu ikusmen-arloko ikerkuntzan, ONCEk finantzatuta, gehienak nazio zein nazioarteko mailan ospe handiko ikerlarienak.
- 3 proiektu, gizarte-ikerketari buruzkoak: bat Madrilgo Unibertsitate Autonomoarekin elkarlanean garatuta, ikusmen-desgaitasundun pertsonen orientazio eta mugikortasunerako espazio-irudikapenaren gaineko ikaskuntzen eraginari buruzkoa; bigarrena, nahi gabeko bakardadeari buruzkoa, itsuei dagokienez; eta landa-lan bat desgaitasuna duten pertsonen eskubideak errespetatzen diren jakiteko.

Horrez gain, ikerkuntza eta berrikuntza sozialaren alorrean honako ekintza hauek egin dira:

- Gizarte-zerbitzuen arloan berrikuntza-esperezentzien eta jardunbide egokien VI. lehiaketaren epaia.
- ONCE Innova Ekintzaileak 2022 erronka: desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea eta inklusio digitala hobetzeko moduko ideia berritzaileak sustatzeko ekimena.

Genetika-arloko adituek eta zientifikoek eginiko aholkularitza genetikoko zerbitzuaren bidez, ONCEk beren errealitatearen ezaugarri kliniko eta genetikoen berri ematen die pertsona itsuei, bai eta gaixotasun hereditario baten familia-pronostikoari buruzko orientazioa ere.



TifloInnova 2022

ONCEk bi urtean behin TifloInnova bultzatzen du, pertsona itsuentzako teknologia eskuragarriko azoka. 2022an, indar handiagoarekin eta, batez ere, berrikuntza gehiagorekin itzuli zen azoka hori, pandemiagatik atzeratu behar izan ostean.

Apirilaren 22tik 24ra bitarteko asteburuan, 'TifloInnova 2022' ekimenak Madril pertsona itsu edo ikusmen txikikoentzako azken teknologia eskuragarrien nazioarteko erdigunea bihurtu zuen. 'La cara amable de la tecnología /Tecnologiaren aurpegi atsegina' izenburupean, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen **bizi-kalitatea hobetzeko etorkizunerako joera guztiak eta diseinatutako aurrerapen ugariak erakutsi zituen.**

Azokak nazioarteko 30 erakusketari bildu zituen eta 30 tailer, aurkezpen eta hitzaldi baino gehiago eman zituen streaming bidez. TifloInnovak 3.500 bisita presentzial eta 28.500, birtual baino gehiago izan zituen edizio arrakastatsu honetan. Eta 'FUN Gunea', aisia teknologiko eskuragarriari soilik eskainitako gunea estreinatu zuen, zehazki, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen erabiltzeko moduko bideojokoei, Xbox eta PlayStation presentziarekin.

Bestalde, Madrilen ONCE Fundazioak duen egoitzan Espacia gunetik berrikuntza mantendu zuen, berrikuntzari, irisgarritasunari eta pertsona guztientzako diseinuaren sustapenari eskainitako espazio irekia eta lankidetzarakoa.

Eta Por Talento Digital/Talento Digitalaren Alde "hub" digitalarekin jarraitu zuen, desgaitasuna duten gazte eta nagusientzako prestakuntza- eta inspirazio-lekua eta erreferentziagunea teknologia eskuragarri eta prestakuntzarako. 2022an, ekitaldi interesgarri ugari izan dira bertan.

Irisgarritasun Unibertsalaren alorreko ekintza-ildo

garrantzitsuetako bat, **I+G+b jarduera da, baita ONCE Fundazioak berrikuntzari egiten dion babesa ere. Hori guztia bideratuta dago pertsona guztientzako diseinua sustatzera eta teknologia desgaitasuna duten pertsonen erabateko inklusioa lortzeko aukera dela bermatzera.**

2022an, 37 berrikuntza-proiektu garatu dira, hona hemen nabarmenenak: bideojoko eskuragarri buruzko zenbait ekimen; AccessJobs eta AccessRobots proiektuak, onlineko bilerak eta prestakuntza izateko bi plataforma, pertsona guztientzat eskuragarriak; eta soluzio mugikor eta autonomoak, desgaitasun-profil desberdinak dituzten pertsonen espazio konplexuetan, publikoetan zein pribatuatan, laguntzen dietenak. Era berean, **ONCE Fundazioak irisgarritasun unibertsalaren arloko ekintzaitza babestu du.** Proiektu-azeleragailu propioa du, eta lau proiektu amaitu dute azelerazio-ziklo osoa urtean zehar. Gainera, inpaktu handiko gizarte-berrikuntzako hainbat proiektu babestu dira, ospe handiko zenbait erakunderen eskutik, hala nola Ship2B.

Halaber, azpimarratzekoa da Ilunionen partaidetza MentallyPro proiektuan: PRL Innovación elkartearen ekimen bat, hainbat jarduerasektoretan arrisku psikosozialak ebaluatzeko tresna bat diseinatzeko, desgaitasuna duten pertsonentzat erabilgarri. Berrito ere, gizarte-berrikuntza hobetzeko.

Eta, 2022an, 6conecta proiektua ezartzen jarraitu da, lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketa integralerako aplikazio bat, helburu hauek dituenak: segurtasun- eta osasun-jarduera digitalizatzea, dokumentuak kudeatzeko prozesuak optimizatzea, arlo horretako prozesuak estandarizatzea eta administrazio-kudeaketako

denborak murriztea. Bestalde, prestakuntza-ildoek, baita zuzendarientzat ere, eraldaketa digitala eta berrikuntza izan dituzte ardatz.

Horrek guztiak agerian uzten du ONCE Gizarte Taldeak zeharka egindako lankidetzalana, esparru zabalenetik, guregana hurbiltzen diren teknologia, ikerkuntza eta garapenaren alorreko eragileekin, **beti pentsatzeko diseinuak guztientzat izan behar duela eta ondasunen eta zerbitzuen eskuragarritasunak eta erabilgarritasunak derrigorrezko maximoa.**





6

Balioetan INSPIRATZEA

- 6.1 Etika, guztiaren gainerik
- 6.2 Konfiantza sortzen duen gardentasuna



Egin klik kapitulu bakoitzean





ONCE Gizarte Taldeak, jaio zenetik, apustua egin zuen herritarren alboan jartzearen alde, elkarrekin bizitzearen, hobetzearen, aurrera egitearen eta egoera kaltegarriak elkarrekin gainditzearen alde, horrela, konfiantzazko lotura komun bat bultzatzeko. Eta, horren harira, etika eta gardentasuna funtsezko balio bilakatu dira, Erakundearen DNari gehitu izan zaizkion beste batzuekin batera. Hori guztia, ahalik eta kontrol eta neurgailu gehienekin, arriskuak ekiditeko eta egiten den guztiak gure inspirazioa diren balio horien gainean garapen egokia duela bermatzeko.

6.1 Etika, guztiaren gaintik

Ekimen horien garapena, sustapena, ezarpena eta jarraipena bermatze aldera, Etika, Giza Baliabide eta Erakunde Kulturaren Batzordea (gaur egun Gardentasun eta Etika Behatokia) eratu zen, zeina, zuzenean Kontseilu Nagusiaren menpe egonda, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea ezartzeaz arduratzen baita, eta etika-arloan honako zeregin hauek betetzen baititu: ONCE Gizarte Taldearen etika-kodeen ezagutza eta hedapena sustatzen ditu eta horien konplimentuaren jarraipena egiten du; jokabide etikoak garatzeko ekimenak poposatzen ditu eta etika-arloan sortutako kexak, salaketak eta iradokizunak bideratu eta kudeatzen ditu.

Arau, politika eta prozedura jakinak ditu, eta horiek osatzen dituzte lan ona eta afiliatuek, langileek, administrazio publikoek eta beste interes-talde batzuek emandako konfiantza eta zilegitasuna babesteko behar den arreta-mekanismoa.

ONCEn estandar etikoak eta jokabide-estandarrik:

- Jokabide Kode Etikoa ONCE Gizarte Taldeko kontseilari, zuzendari, erdi-mailako arduradun

eta zuzendaritza-mailarik gabeko kudeaketa-arduradunentzat: 2019an Kontseilu Nagusiak akordio bidez onartua. Kode hori jokabidea gidatu behar duten 11 balio etikotan zehaztuta dago: Komunikazioa, Elkartasuna, Konfidentzialtasuna, Ekitatea, Konfiantza, Zintzotasuna, Apaltasuna, Begirunea, Konpromisoa, Profesionaltasuna eta Erantzukizuna.


- Kode Etikoa eta Jokabide Gida ONCEko langileentzat: 2015ean Kontseilu Nagusiak akordio bidez eguneratua. Erakundearen jarduerarako orientazio-gida da eta ez da nahitaez harpidetzekoa.
- Joko-arloko segurtasunari buruzko jokabide-kodeak: merkataritza-jardueran parte hartzen duten langileen jardunaren eta jokabide-praktiken oinarritzeko printzipioak dira. Leialtasun-, gardentasun-, profesionaltasun- eta konfidentzialtasun-balioetan oinarritzen da, eta nahitaez bete behar dira.
- Hornitzaileak hautatzeko eta ondasunak eta zerbitzuak kontratatze arau-esparrua: beste arau batzuen artean, hornitzaileei aplikatu beharreko Kanpoko Arreta Egokiaren Prozedura eta hornitzaileentzako Jokabide Kodea jasotzen ditu. Azken horrek printzipio etikoak eta jokabide-printzipioak biltzen ditu, guztiak Nazio Batuen Munduko Itunaren hamar printzipio unibertsalekin eta ONCE Gizarte Taldearen printzipioekin eta balioekin bat etorrira
- Informazioa arduraz kudeatzeko eta datuak babesteko politika, zenbait politika eta zirkular garatzen dituena: Datu pertsonalak babesteko zirkularra eta Segurtasun Dokumentua. Nabarmentzekoa da 2022an informazioa sailkatzeko protokolo berria (PCI) onartu zela, informazio-aktiboak identifikatu eta egoki kudeatzeko, segurtasunari eta datuen pribatutasunari dagokienez. Arau horiek egin

dira Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteko 3/2018 Lege Organikoa betetzeko. Gainera, ONCEk Datuen Segurtasunerako eta Babeserako Batzorde bat eta Dokumentuen Baloraziorako Batzordea ditu arlo horretako kanpoko eta barneko arauak betetzen direla ikuskatzeko, hartu beharreko irizpideak eta neurriak ezartzeko eta barne-kontsultak ebazteko.

- Datuak babesteko ikuskaritza (bi urtez behingoa): izaera pertsonaleko datuak babesteko neurrien eraginkortasuna eta betetze-maila egiaztatze, indarreko legediarekin eta barneko araudiarekin bat etorrira.
- 2022an, ONCEk Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren (AEPD) informazio-errekerimendu bat jaso zuen DBEOa, ustez, urratzeagatik. Behin ONCEk alegazioak aurkeztuta, AEPDk ebatzi zuen ez zuela izapidetzeko onartu, eta prozesua itxi zuen.
- WLAren (*World Lottery Association*) marketineko eta komunikazioko jardunbide onenei buruzko gidalerroak: loteria-produktuen publizitatea modu arduratsuan egiteko jarraibideak zehazten dituzte. ONCEk eta publizitate- eta komunikabide-agentziek jarraitzen dituzte, bai eta marketin-arloko ekintzen eta kanpainen hornitzaileek ere.
- Zigorrek Prebenitzeko Eredua: prebentzio-neurriak muturreraino eramaten ditu, ONCEn eta bere inguruan zilegi ez diren ekintza penal posibleak saihesteko. Zigorrek Betetzeko Politika dauka, 2022ko abenduan eguneratua, nahitaez bete beharrekoa eta erakundeari oro har aplikatzeko, eta arauak eta balio etikoak errespetatzen dituen jokabidea izateko borondatea berresten du. Politika horren babespean dago zigor-arloko betearazpena kudeatzeko sistemaren dokumentu egituratzailea, arlo horretako antolamendu-arauak eta -dokumentuak jasotzen dituena, eta

arrisku penalak goiz ebaluatzeko, prebenitzeko, detektatzeko eta kudeatzeko diseinatutako neurriak biltzen dituena. ONCEko Prebentzio Penaleko Organoa da Zigorrek Betetzeko Kudeaketa Sistema horren funtzionamendua gainbegiratzeaz arduratzen dena.

- Zergak betetzeko eredua: Zergak Betetzeko Politika bat, Zergak Betetzeko Kudeaketa-sistema egituratzeko dokumentua, eta ONCEko zerga-prozedurei buruzko araudia daude. Era berean, Zergak Betetzeko Organoa da Zergak Betetzeko Kudeaketa-sistema ikuskatzeko arduraduna.
- Kapitalen zuriketari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzea: aplikatu eta, oro har, erakundearen eta haren langileen portaera gidatu behar duten kontrol-prozedurek eta -neurriek osatutako eskuliburu bat dago, hainbat gairi buruzko berariazko arauarekin, hala nola bezeroak behar bezala identifikatzea, pertsona fisiko eta juridikoei sariak ordaintzea, eragiketa susmagarriak detektatu eta aztertzea, edo eragiketa horiek agintaritza ikuskatzaile eskudunari, Kapital Zuritzea eta Arau-hauste Monetarioak Prebenitzeko Batzordearen Zerbitzu Exekutiboari (SEPBLAC), jakinaraztea. Gainera, eskuliburua behar bezala betetzen dela ikuskatzeko eta bermatzeko, barne-kontrolerako organo bat eratu da (kapitalen zuriketari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko ONCEn Batzordea), eta ONCEn ordezkaritza bat izendatu da SEPBLACen aurrean.



Bestalde, Ilunionez uste du bere interes-taldeen konfiantza zintzotasunean oinarritzen dela, hau da, jarduera etiko, zintzo eta arduratsuan. Horregatik, **Ilunionen Administrazio Kontseiluak Ilunionen Konplimendua Kudeatzeko Sistema onartu zuen 2018ko abenduaren 20an**. Sistema hori UNE 19601 arauarekin bat dator, delituak prebenitzeko eta erakundeetan arrisku penala murrizteko eta etika- eta betetze-kulturaren alde egiteko. Gainera, Ilunionez badu prebentzio penaleko organo bat, 2017ko ekainaren 14an eratua, interes-talde guztietan prebentzio penala eta Zigorrek Betetzeko Kudeaketa Sistemaren neurriak ezartzea helburu duena.

Zigorrek Betetzeko Politikak, Zigorrek Betetzeko kudeaketa-sistema egituratzen duen dokumentuarekin batera, delituak prebenitzeko eredu bat garatzen du. Eredu horrek prebentzioa, detekzioa eta kontrola ezartzen ditu, ustelkeriaren, eroskeriaren eta kapital-zuriketaren aurkako borrokan behar den arreta ziurtatzeko. 2020an, Ilunion Taldeko Zigorrek Prebenitzeko Organoak Barneko eta Kanpoko Arreta Egokiaren Prozedurak onartu zituen, baita Salaketa Kanala Kudeatzeko Prozedura ere. **2022an ez da inolako salaketarik egon ustelkeria- eta eroskeria-arloan**. Ilunionez hainbat tresna ditu etika-arloan, hala nola Jokabide Kode Etikoa, Kanal Etikoa eta Etikari buruzko Lantaldea.

Kanal Etikoa posta elektronikoko postontzi baten bidez kudeatzen da, eta langile guztiek bidal ditzakete kontsultak, hobekuntza-proposamenak eta Jokabide Kode Etikoaren aurkako portaeren salaketak, kodea betetzera behartuta dauden pertsonen urratu badute. ONCE Gizarte Taldearen Gardentasun eta Etika Behatokiaren mendeko

Etika Lantaldeak kudeatuko du Kanal Etikoa. 2022an, Ilunionezko langileen bi kexa jaso ziren.

Era berean, ONCE Gizarte Taldeko langile guztiek Gracias a Ti / Zuri esker lankidetzako proiektu solidarioa dute eskura. Ekimen horrek langileen nomina-biribiltze boluntarioa bideratzen du desgaitasunaren arloan hertsiki lan egiten ez duten gizarte-proiektuetara. ONCE Gizarte Taldeak langileek emandako kopurua bikoiztu egiten du.

ONCE Gizarte Taldearen balio etikoak

- Komunikazioa
- Elkartasuna
- Konfidentzialtasuna
- Ekitatea
- Konfiantza
- Zintzotasuna
- Apaltasuna
- Begirunea
- Konpromisoa
- Profesionaltasuna
- Erantzukizuna



6.2 Konfiantza sortzen duen gardentasuna

Lerro hauek hastean adierazi dugun bezala, gardentasuna oraingo eta etorkizuneko gakoa da, jardute onaren bermea eta zintzotasunaren erakusgarria, konfiantzarako biderik onena. ONCE Gizarte Taldearen Gardentasun eta Etika Behatokia gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzko Legea ezartzearen arduradun nagusia da, baita etika-arloan ere.

Aipatutako politikez eta arau-agiriez gain, ONCEk sustatu nahi duen gardentasunarekiko konpromisoaren esparruan, aldiro-aldiro informazio finantzario eta ez-finantzarioa argitaratzen da, intraneten zein erakundearen webgunean, Erakundearen jardueren balioa nabarmentzen duena eta interes-taldeei erantzuten diena, besteak beste:

- Ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostenak eta dagozkien ikuskaritza independentearen txostenak, banakoak eta bateratuak.
- ONCE Gizarte Taldearen Balio Partekatuari buruzko txostena
- Informazio Ez-Finantzarioari eta Aniztasunari buruzko Egoera Orriak, banakakoak eta bateratuak.
- Herri-administrazioekin indarrean dauden hitzarmen eta kontratuen zerrenda.
- ONCEren egitura organikoak.

Ekitaldi honi dagokionez, eta ONCE Gizarte Taldearen Ikuskaritza Batzorde Nagusiaren koordinaziopean, ONCEren Babesletza Kontseiluan derrigorrezko 18 ikuskaritza eta borondatezko hiru aurkeztu dira: sei ONCE Gizarte

Taldeko entitate nagusien urteko kontuekin dute zerikusia; hiru Informazio Ez-Finantzarioari eta Aniztasunari buruzko Egoera Orriekin; eta hamabi Nazioko Gobernuaren eta ONCEren arteko Akordio Nagusia betetzearekin.

Era berean, sei hilean behin, kanpoko ikuskaritza-sozietate batek kupoiaren zozketetan erabilitako bolen peritazioa egiten du, eta peritazio hori Babesletza Kontseilura bidaltzen da. Halaber, hiru urtean behin, Kontsumo Ministerioak homologatutako enpresa batek ziurtatzen ditu joko aktiboaren arloko produktuen zozketa birtualetan eta bat-bateko loteriaren txartelen Interneteko erosketetan erabitzen diren ausozko zenbakitze-sortzaile biak, baita Interneteko txartelen erosketarako eta joko aktiboko eta bat-bateko loteriako apustueterako funtzionalitatea ere.

Era berean, hiru urtean behin, World Lottery Association (WLA) eta European Lotteries (EL) erakundeek eskatuta, ikuskaritza-lanak burutzen dira, arrazoi bikoitzagatik:

- ONCEk WLAREN segurtasun-estandarrak betetzea.
- ONCEk WLA eta EL erakundeek joko arduratsuen arloan finkatutako estandarrak betetzea.

Ikuskaritza horien ondorioz, Babesletza Kontseiluan ere aurkeztuta, lau ziurtagiri (bakoitzak bi) eskuratu dira, gure webgunean argitaratuta daudenak.

Bestalde, ONCEk prestakuntza-ikastaroak antolatzen ditu bere balioekin bat datorren jokaera etiko baten alde. Gainera, PortalONCE atarian langileek eskura dute “Kapitalen zuriketari eta terrorismo finantzaketari aurea hartzea” onlineko tutoriala, baita kode etikoari buruz eta informazioaren kudeaketa arduratsuari buruz

lehenago emandako kurtsoen gaiak ere.

ONCEk salaketa-kanal bat du bere webgunean, edozein afiliatuk, langilek edo hirugarrenek salaketak edo iradukizunak aurkezteko tresna gisa, irregulartzat edo ez-betetzetzat har daitezkeen jokabideei dagokienez, Jokabide Kode Etikoa urratzea ekar badezakete edo delitua edo zerga-arloko arau-haustea izan badaitezke. Kanalak salaketen konfidentzialtasuna bermatzen du, bereziki salatzailearen identitateari buruzko datuei dagokienez.

ONCE Gizarte Taldearen Gardentasunaren Behatokiko idazkariak eta Zigorak Prebenitzeko





Behatokiko idazkariak jasotzen dituzte jakinarazpenak eta, gaiaren arabera eta bi Behatokien presidentek ontzat emanda, bideratu egiten dira kudeatu eta ebazteko: etikakoak Etikari buruzko Lantaldera; penal-arlokoak Zigorrek Prebenitzeko Behatokira, eta zerga-arlokoak Zergak Betetzeko Organora. Dagokion espedientea izapidetuko da, eta salatzaileari azken erabakia helaraziko zaio.

2022an, 11 jakinarazpen jaso dira kanal honetatik ONCE Gizarte Taldearen Kode Etikoaren eta Zigorrek eta Zergak Betetzeko Politikak aplikatu eta konplitzeari buruz (horietako bederatzitan ez zen inolako ez-betetzerik aurkitu, beste bat ez zegokion arlo horri eta azkena ez zen izapidetzeko onartu).

ONCEn, giza eskubideen arloko arreta egokia etengabeko kudeaketa-prozesua da jarduera guztietan. Hala ere, hornitzaileekiko eta negozio-bazkideekiko harremanetan giza eskubide horien balizko urraketak saihesteko, kanpo-arreta egokirako prozedura bat ezarri da. Horren arabera, ONCerekin kontratatzeak aukeran dauden ezaugarriengatik arrisku handia duten hornitzaileei, ingurumen- edo gizarte-praktikei buruz ebaluatzeaz gain, besteak beste, ONCE Gizarte Taldeak negozio-bazkideen eta hornitzaileen Jokabide Kodeari atxikitzeak eskatzen zaie. Kode horren 2. atalak (Giza eskubideak eta lan-baldintzak) ezartzen du nazioartean aitortutako giza eskubideak errespetatu behar dituztela. Gainera, Nazio Batuen Mundu Itunari atxikitzea gomendatzen zaie.

Zerga-erantzukizuna

Zerga-betekizunak betetzeko, ONCEk, alde batetik, Zergak Betetzeko Politika dauka, jarduera gainbegiratza, zaintza eta kontrolatza bideratua, zerga-betebeharrak betetzeko arreta egokia bermatzeko eta agerian uzteko; eta bestetik, arrisku fiskalak prebenitzeko, antzemateko eta kudeatzeko zergak betetzeko kudeaketa-sistema egituratzen duen dokumentua. Indarrean dagoen arau-esparru gisa, Prozedura Fiskalen Zirkularra dago, erakundeari eragiten dioten alderdi fiskal nagusiak eta aplikatzekoak diren zergetan jarraitu beharreko politikak jasotzen dituena.

Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza Teknikoa arduratzen da zerga-likidazioak kontabilitatearekin koadratzeko unean-unean alderdi operatiboek, eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziari (ZAEA) nahitaezko informazioa emateaz.

Zergak betetzeko kudeaketa-sistema honen bidez, garaiz erantzun nahi zaie erakundeak bere jardueran aurre egin diezaikeen arrisku fiskaleko egoerei. Ondorio horietarako, Zergak Betetzeko Organoak ONCeren arriskuen eta zerga-kontrolen matrizea du eskura, eta horretan jasota daude prozesu fiskalei lotutako kontrolak. Organo horrek gai horri buruzko kontzientzia-zioa sustatu zuen, dokumentu egituratzailea zabalduz eta erakundeko hainbat mailatan prestakuntza-ikastaroak emanez.

Zergak Betetzeko Politikak hainbat bide ditu informazioa zabaltzeko Zergak Betetzeko Organotik Zuzendaritzako eta Kontseilu Nagusiko beste organo batzuetara:

- ONCE Gizarte Taldeko Ikuskaritza Batzorde Nagusiari, bera baita zergak betetzeko sistemaren eraginkortasuna aldizka berrikustez eta Kontseilu Nagusiari beharrezko oharra edo hobekuntza-proposamenak egiteaz arduratzen den organoa.
- Ikuskaritza Batzorde Nagusiak eskuordetuta, ONCEko Zuzendaritza Nagusiko Ikuskaritza Batzordeari, organo horrek ikuskatzen baititu zergak betetzeko sistemaren eraginkortasuna eta barne-kontrola, barne-ikuskaritza eta arrisku fiskala kudeatzeko erakundearen barruko sistemak.

Aurreikuspen hori betez, Zergak Betetzeko Organoak ONCE Gizarte Taldearen Ikuskaritza Batzorde Nagusiari bidaltzen dizkio, Zuzendaritza Nagusiaren Ikuskaritza Lantaldearen bitartez, sei hilean behin egiten diren Zergak Betetzeko txosten operatiboak eta Zergak Betetzeko urteko txostena. Gainera, erakundea arriskuan jar dezaketen irregulartasun edo ez-betetze nabarmenen berri emango die Kontseilu Nagusiari eta Zuzendaritza Nagusiari.

Gainera, ONCeren Barne Ikuskaritza Sailaren ardura da zergak betetzeko kudeaketa-sistema eraginkorra den eta behar bezala funtzionatzen duen ikuskatzea, esandako Politikan adierazitako betebeharrekin bat etorrita. Gainera, ezartzen den aldizkakotasunarekin jakinaraziko ditu antzemandako hutsuneak eta hobekuntza-eremuak.

Urteko kontuak, banakakoak eta bateratuak, eta informazio ez-finantzarioaren eta aniztasunaren orri-egoerak Ernst & Young SLk ikuskatzen ditu. Gauza bera gertatzen da Ilunioneekin, 2020an onartu baitzuen Zergak Betetzeko Kudeaketa

Sistema ezartzea. 2021eko martxoaren 26an, Ilunionen Administrazio Batzordeak hiru dokumentu onartu zituen:

- Zergak Betetzeko Politika: zerga-arloko betetze-printzipioen esparrua ezartzen du eta Zerga Politikan eta Taldearen Kode Etikoetan ezarritakoa garatzen du.
- Zergak Betetzeko Sistemaren dokumentu egituratzailea: zerga-arriskuak goiz ebaluatzeko, prebenitzeko, detektatzeko eta kudeatzeko diseinatutako arauak eta neurriak jasotzen ditu.
- Zerga-estrategia: zerga-kudeaketaren oinarri diren printzipioak definitzen ditu (gardentasuna, zehurtzia, etika eta zerga-agintariekiko lankidetzaren goren), baita araudia betetzean eta zerga-jardunbide egokietan oinarritutako jokabide-esparrua ere.



Ondoren, Zergak Betetzeko Organo bat eratu zen, Zergak Betetzeko Politika gainbegiratu, zaindu eta kontrolatzeko. Era berean, 2020-2023 Plan Estrategikoak zerga-prozedura nagusiak berrikustea eta arrisku fiskalen mapa bat egitea du helburu.

Bestalde, ONCE Fundazioak ere gardentasunaren, zuhurtziaren, etikaren, eta zerga-agintariekiko lankidetzaren gorenaren printzipioetan oinarritzen du bere zerga-kudeaketa.

Halaber, nabarmentzekoa da 2022ko azaroan ONCE Fundazioak eta Ilunioneek lehengo saio bateratua izan zutela zergak betetzeari buruz.

Bestalde, ONCE Fundazioak Europako Gizarte Funtsaren (EGIF) kudeaketan iruzurraren aurka borrokatzeko politika bat garatu du, Europako Batzordeak Europako funtsak kudeatzen dituzten erakundeei emandako gomendioen ildotik. Horretarako, Europako Gizarte Funtsaren finantza-laguntzarekin garatzen dituen jarduketetan iruzurraren aurka Borrokatzeko Eskuliburua egin du, eta, halaber, detektatutako arriskuen eta iruzurraren esparruan zuzeneko komunikaziorako bakar-bakarrik helbide elektronikoa bat jarri du abian (misdennunciasfraudefse@gen.fundaciononce.es).

Eskuliburuarekin batera, ONCE Fundazioaren eta Inserta Empleoren Etikaren eta Jokabide Onaren Kodea dago, EGIFen programak kudeatzeko eta, horien bidez erakusten ditu erakundeak arlo honetan duen konpromisoa eta integritate, objektibotasun eta zintzotasunaren printzipio zorrotzenekiko bere atxikimendua.

Zero arriskurako

ONCEren Arriskuak Kudeatzeko Sistema Integralak (SIGR) erakundearen arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko esparrua ezartzen du. Identifikatzen diren arrisku eta inpaktu garrantzitsuenak Arriskuen Maparen bitartez

aztertzen dira. Gaur egun, 18 arrisku jasotzen ditu Mapak, ekonomia- eta gizarte-izaerakoak eta Erakundearen integritateari eta iruzurrari buruzkoak. Hona hemen horietako batzuk: afiliatuei emandako zerbitzuen kalitatea jaitea; loteria-produktuen eskaerari ezin erantzutea; joko-alorreko araudia ez betetzea; Informazio-sistemei eta horien segurtasunari lotutako arriskuak; iruzurra eta ustelkeria joko-jardueretan; edo lege-aldaketak, besteak beste. 2022an, ingurumen-arriskuak idenfikatzen egin da lan, horiek kudeatzeko eta Arrisku Mapan sartzeko aurretiazko urrats gisa.

ONCEk dituen arriskuen identifikazioa eta kudeaketa erakundearen maila guztietan kudeatzen dira. Arrisku bakoitzari kudeatzaile bat esleitu zaio, hiru hilean behin fitxa bat bete dezan lotutako alarma-kontrol eta -adierazleekin. Behar bezala kudeatzearen mende dago nahi ez den gertakaria gertatzeko aukerak nabarmen murriztea eta neurri zuzentzaileak proposatzea. Fitxa horiek hiru hilean behin ematen zaizkio Arriskuen Koordinatzaileari, eta hark txosten bat egiten du alderdi garrantzitsuenekin, Arriskuen Batzordeak azter ditzan.

Arrisku Batzordea Zuzendaritza Kontseiluaren mendeko organo betearazle eta aholku-emailea da, eta arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko politika behar bezala gauzatzen dela gainbegiratu du, ONCEko jardueren arriskuak eta inpaktuak identifikatuz, kudeatuz, jarraipena eginez eta aztertuz.

Arrisku Mapa osatzen duten arrisku-multzoak lortutako emaitzak jakinarazten zaizkio urtero ONCE Gizarte Taldeko Ikuskaritza Batzorde

Nagusiari, eta horrek arriskuak kudeatzeko sistemen eraginkortasuna gainbegiratu du.

Bestalde, Ilunioneek arriskuak kudeatzeko sistema integral bat du (SIGR edo ERM), berari eragin diezaioketen gertaera potentzialak identifikatzeko, arriskuak onartutako arrisku-mailaren barruan kudeatzeko eta helburuen lorpenari buruzko arrazoizko segurtasuna emateko diseinatua. Sistema horrek arriskuen kudeaketaren arloko estandar nagusiekin bat datorren politika bat du, hauekin bereziki: ISO 31000 nazioarteko estandarrean ezarritakoak, arriskuen kudeaketari buruzko erreferentziazko estandar espezifikoa gisa, eta COSO eredu, munduan arlo horretan hedatuen dagoen Arriskuak Kudeatzeko Esparruetako bat.

ONCE Fundazioak ere badu arriskuak kudeatzeko sistema integral bat, jarraipena egiteko politika eta sistema bat dauzkana eta Ilunionen nazioarteko estandar eta eredu bereberekin bat datorrena. Bere Arrisku Mapa 2022an eguneratu da. Sistemak langile guztiei eragiten badie ere, Arrisku Azpibatzearen figura nabarmendu behar da.

Horrez gain, Europako Gizarte Funtsak kofinantzatutako programen kudeaketari dagokionez, ONCE Fundazioa, Bitarteko Erakunde gisa, arriskuak kudeatzeko ikuspegi jakin bat aplikatzen du, arriskuak kontrolatzeko eta arintzeko matrize espezifikotik oinarrituta. Eta hori guztia egiten du gorago aipatutako iruzurraren aurka borrokatzeko politikaren esparruan.



7

Orainetik etorkizunerako PERSPEKTIBA





Ezin dugu txosten hau itxi, kontuak emateko eta herritarrei argi eta garbi geure burua erakusteko eredu hau, eguneroko geure zereginean barneratuta dugun 11 letrako beste hitz bat erabili gabe: perspektiba, etorkizuna irabazteko iragana eta oraina arretaz behatzeko zentzuan ulertuta. ONCE Gizarte Taldearen unitatearen kontzeptuari eusten diogu, talde-lanaren eta baterako kudeaketaren maxima gisa. Zalantzarik gabe, gero eta urutiago eramango gaitu kontzeptu horrek, gure taldeen, ONCEren, ONCE Fundazioaren eta Ilunionen artean batzen ditugun ia 69.000 langileen, buru belarri aritzeari esker.

Gu guztiok gara Erakunde Kulturako Plan baten enbaxadorerik onenak, egoera eta denbora berrien arabera gaurkotuta, langile sartu berrientzat, Erakundearen “stakeholders” guztientzat eta, oro har, gizarte osoarentzat oinarri tinkoa den plan bat.

Horrek, harreman publiko, instituzional eta komunikazio-arlokoei dagokienez, plan trinko bat ahalbidetzen digu, gizarteari zer egiten dugun helarazteko, herritar inklusiboenenganantz bideratuta dagoela erakusteko. Talde gisa ezagut gaitzaten eta zer eskaini dezakegun jakin dezaten nahi dugu, eta, horren harira, 2023an www.gruposocialonce.com webgunea estreinatuko

dugu, informazio bateratu guztiarekin.

Hemen azaldu dugun hori guztia ez litzateke errealitate izango herritarrentzat korporazioko arlo guztien artean dagoen inbrikaziorik gabe, arlook gai baitira gure estrategia osoak Erakundeak bultzatutako balioekin bat datorren koherentzia-zentzua duela erakusteko, eta desgaitasuna duten pertsonen eta, hedaduraz, gainerako herritarren bizitza hobetu dezaketen ekonomia- eta gizarte-eremuetan berritzen jarraitzeko gauza direla.

Ekitaldi on bat itxi dugu, 2022koa (jada adierazi genuen 2000 11+11 zela), mugarri nabarmenak izan dituen - dagoeneko aipatuak-. Mugarri horiek eramango gaituzte gizarte-itzuleran murgilduta jarraituko dugun 2023. urtera. Horren gainean hiru alderdi ilusionagarri aipatuko ditugu:

- Gogor egingo dugu lan Espainiaren Europar Batasuneko (EB) presidentzian zehar, bigarren seihilekoan, gizarte-alderdiek, bereziki desgaitasuna duten pertsonekin lotutakoek, zeharkako zeregina izan dezaten eta Espainiak bere marka sozialena harro erakutsi dezan.
- Ekitaldian zehar mugarri nabarmen bat ospatuko dugu: Latinoamerikarako ONCE Fundazioaren 25. urteurrena. Urtero, zuzenean,

anai-arrebak diren 19 herrialdeetako 70.000 pertsona itsu baino gehiagorengana heltzen da eta, mende laurden batez, haien errealitatea bultzatu du, hezkuntza eta enpleguaren bidez eta asoziazionismoaren sareak hobetuz.

Eta indar guztiekin lan egiten dugu jadanik aurrerapen batean, “Ikusmen txikia baduzu, zator ONCEra” lelopean. Fundazio berri bat eratuko dugu ONCEra afiliatzeko parametroak bete gabe, ikusmen txikia duten pertsonak - ikusmen-galera handiak dituztenak- artatzeko eta ikusmen-arloan ikerkuntza bultzatzeko.

Iragarki horrek ederki erakusten du zer garen, zer egiten dugun eta zer lortu nahi dugun; herritarrekin, zuotako bakoitzarekin, dugun konpromiso etengabearen erakusgarri da, apaltasunetik eta egunero bizi behar dugun errealitatetik, gizarte justuagoak eta inklusiboagoak bultzatzen saiatzeko. Izan ere, zurekin, guztiok elkarrekin, bizitzak eraldatzen ditugu.



TXOSTEN ARRAZOITU BAT

Laburpen Exekutibo Integratu hau prestatzeko aintzat hartu dira ONCE Gizarte Taldearen hiru arlo exekutiboek (ONCE, ONCE Fundazioa eta Ilunion), nork bere aldetik, prestatzen dituzten Informazio Ez-Finantzarioari eta Aniztasunari buruzko Egoera Orriak, zeintzuek arloen ekintzen xehetasunak azaltzen baitituzte eta laburpen honetan batzen baitira.

Egoera Orri guztiak Ernst & Youngek egiaztatu ditu, salbuespenik gabeko txosten baten bidez, eta prestatu dira informazio ez-finantzarioari eta aniztasunari buruzko abenduaren 28ko 11/2018 Legea eta iraunkortasun-memoriak idazteko GRIren jarraibideak betez.

Egoera-orriok egiteko, aldez aurretik materialtasun-analisi bat gauzatu da, non agerian jartzen baitira Erakundearentzat garrantzitsuak diren eta intereseko taldeen erabakietan eragina izan dezaketen alderdi ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak.

ONCE Gizarte Taldearen konpromisoari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, www.once.es, www.fundaciononce.es eta www.ilunion.com webguneetan kontsultatu daitezke egoera-orriak eta dagozkien egiaztapen-txostenak.